



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

HAUSKORTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN BEHARREI ERANTZUTEKO ARAUDIAREN AZTERKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

Zuzenbideko Gradua

2018-2019 urtea

EGILEA: MAIALEN AIZPURUA ESNAOLA

ZUZENDARIA: ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. HAUSKORTASUNAREN KONTZEPTUA	4
2.1 Kontzeptua ikuspegi soziologikotik eta medikotik	4
2.2 Hauskortasuna zahartzaroan eta adinekoen egoera	6
2.3 Adinekoen beharrak	9
3. ZUZEBIDE KONPARATUA	10
3.1 Kuradoretza alemaniarra	10
3.2 Italiako sostengurako administrazioa	15
4. NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA: 2006ko NEW YORKEKO KONBENTZIOA	21
5. ESPAINIAR ORDENAMENDUA	26
5.1 Kataluniako asistentzi figura	26
5.2 Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru berria aldatzeko aurreproiektua	34
5.3 Espainiar zuzenbide komuna	34
5.4 Desgaitasun materian legislazio zibila eta prozesala Erreformatzen duen Lege Aurreproiektua	40
6. KONKLUSIOAK	48
7. BIBLIOGRAFIA	52

1.SARRERA

Azken denboraldian, aurrerapen handiak egon dira pertsona desgaituen eskubide eta askatasunen errekonozimenduan. Geroz eta gehiago bilatzen da pertsona hauen integrazioa eta haien duintasuna errespetatzea gizartean, beste pertsonetikiko berdintasun maila batean parte hartu dezaten. Dela mundu mailako hitzarmen baten bidez, dela estatuen ordenamendu propioen bidez, korrante aldaketa bat eman da gaitasun juridikoaren inguruan, non pertsona desgaituak subjektu pasibo izatetik subjektu aktibo bihurtzera igaro daitezzen bilatzen den, aipatutako berdintasuna eta parte hartzea benetan bermatua egon dadin.

Pertsona desgaituen multzoan kokatutako kolektibo handienetarikoa adineko pertsonena da, denborarekin hazi egingo dena populazioaren bizi esperantza geroz eta gehiago igotzearen eraginez. Kolektibo honetako pertsona batzuk sufritzen duten egoera gogorra da, beraien baldintzengatik erraztasun handiagoa baitaude desgaitasunen bat garatzeko eta honen eraginez hauskortasunean jauzi daitezke. Hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonak behar berriak dituzte, non egungo gaitasun juridikoa ordeztu duen sistema haiek asetzeko egokia ote den edo hura aldatu beharko litzatekeen planteatzen den.

Hori da zuzenki lan honen helburua, gaitasun juridikoaren planteamenduan eman den korrante aldaketa aztertzea, ikusiz zein instrumentu eta hutsune existitzen diren hauskortasun egoeran dauden adinekoen behar hauei erantzuteko, eta ea egokiak diren integrazioa eta berdintasuna helburu duen errealitate berri honi erantzuna emateko, bai nazioarte mailan bai Espainia mailan.

Horretarako, lehenik eta behin hauskortasunaren kontzeptu indeterminatua aztertuko da, adineko pertsonak dituzten behar konkretuak zehaztuz. Ondoren, behar horiei erantzuna emateko beste herrialdeetan existitzen diren tresnen azterketa burutuko da, zehazki alemaniar eta italiar ordenamenduetakoak. Era berean, nazioarteko zuzenbidean jasotzen den planteamendua eta emandako erantzuna azalduko da. Segidan espainiar ordenamenduan jasotako tresnak aztertuko dira, Katalunian eta Nafarroan jasotakoak, alde batetik, eta zuzenbide komuneak, bestetik. Azkenik, Espainiako 2018ko irailaren 21ko desgaitasun gaien araudi zibila eta prozesala erreformatzen duen Lege Aurreproiektuaren azterketa bat burutuko da, hauskortasun egoeran aurkitzen diren adinekoen beharrei eta errealitate berriari erantzun bat emateko egokia den ikusteko.

Metodologiari dagokionez, ikerketa hau burutzeko bibliografian aipatutako artikulu, liburu eta monografiaren autore diren espezialisten iritziak erabili dira. Era berean, Hurkoa Fundazioak antolatutako “Egoera ikusiezina bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa” deituriko jardunaldietan parte hartu nuen, eta bertan burututako mahai inguruetan adituek emandako informazioa eta iritziak ere erabili dira. ¹

2. HAUSKORTASUNAREN KONTZEPTUA

2.1 Kontzeptua ikuspegi soziologikotik eta medikotik

Hauskortasun, zailtasunak planteatzen dituen kontzeptu bat da, modu desberdinetan ulertu baitaiteke eta segun eta zein arloren ikuspuntutik aztertzen den definizioa aldatzen da. Hauskortasuna historikoki aldatzen joan den kontzeptu bat izan da, eta “hausteko” arrisku, heriotza ematearen arriskua handiagotzea, gaixo jartzeko sentikortasun ez ohikoa eta indar edo erresistentziaren galtzea bezala definitu izan da. ²

Kontzeptua eta haren edukia gehien azertu duen arloa medikuntzarena izan da, hainbat azterlan eginik eta definizio bat emanez bere ikuspuntutik. Osasunerako Mundu Erakundeak honela definitzen du:

“Hauskortasuna, sistema fisiologikoen gainbehera progresibo bat da, adinarekin lotua, gaitasun intrintsekoen erreserben beherapenak eragindakoa, zeinak estresoreei zaugarritasun handia eragiten dien, osasunarentzat kaltegarriak diren ondorioak sufritzeko arriskua handituz.”³

Beste definizio posible baten arabera hauskortasuna zahartzeari lotutako egoera bat da, erreserba fisiologikoan emandako gutxitze batek desberdintzen duena, horrek pertsonarengan ezgaitasun arriskua sortzea, erresistentziaren galtzea ematea eta zenbait egitateen aurrean zaugarritasuna handiagotzen duelarik. Era berean beste definizio

¹ HURKOA, “Egoera ikusiezina bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa”, Donostia, 2019ko otsailaren 21ko Jardunaldia.

² JAUREGUI, José R, RUBIN, Romina K., “Fragilidad en el adulto mayor”, *Revista del Hospital Italiano de Buenos Aires*, 32, 2012, 110 .orr.

³ Osasunerako Mundu Erakundeak, World Report on Ageing and Health 2015. https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/186463/9789240694811_eng.pdf?sequence=1 (azkeneko kontsultatua: 2019/05/10)

batzuk eman dira eta horiek foku desberdinak jaso dituzte, horien artean aurkitzen direlarik, funtzio fisikoa, funtzio kognitiboa eta faktore psikologiko eta psikosozialak. Gainera, esan beharra dago irizpide desberdinak erabili izan direla definizio hauetara iristeko eta horien artean irizpide medikoez gain, hala nola gaixotasun kronikoen presentzia, irizpide sozioekonomikoak ere kontuan hartu dira, hala nola, bakarrik bizitzea, sarrera ekonomiko gutxi izatea, 80 urte baino gehiago edukitzea etab. ⁴

Beraz ikusi daiteke orokorrean, definizioek bat egiten dutela esanez hauskortasuna sistema fisiologikoan jasandako gainbehera dela, eta azken batean osasunerako eta ondorioz ezgaitasunerako arriskua handiagotzen duela, zaurgarritasun egoera handitzearekin batera. Hura detektatzeko, medikuntzaren ikuspegitik bost irizpide ezartzen dira, muskulu ahultasuna, gainbehera kognitiboa, aktibitate eza, pisua galtzea eta ibiltzean abiadura galtzea. Horietatik behintzat hiru edukitzearekin hauskortasuna badagoela kontsideratzen da. ⁵

Medikuntzaren ikuspegiaz gain, gatazka dago ea hauskortasuna definitzeko termino biomedikoak erabili beharko liratekeen bakarrik edota ea faktore psikosozialak sartu beharko liratekeen. Honen ondorioz, azken hau ez dago hain garatua.

Hala ere eremu psikosozialean, hasteko kontuan hartzen da bere esanahi semantikoa, eta horretarako RAEra jotzen da. Hiztegiaren aburuz, hauskortasuna hauskorren ezaugarria da, eta hauskor hitzak apurkor esan nahi du, erraz apurtzen dela, ahula, erraz gainbeheratzen dela. ⁶ Zentzu honetan esan daiteke pertsona hauskor bat arrisku egoeran dagoen pertsona bat dela, edozein momentutan “hautsi” daitekeena. Honek suposatzen du bere bizitza kudeatzeko gaitasuna galdu dezakeela eta beraz mendetasuna duen pertsona batean bihurtu.

Hauskortasuna, hainbat terminori lotzen zaio, bakardadeari, dependentziari, babesgabetasunari, esklusioari, segurtasun faltari, funtzionalitateari eta gaitasunari.

⁴ JAUREGUI, José R, RUBIN, Romina K., “Fragilidad en el adulto mayor”, *Revista del Hospital Italiano de Buenos Aires*, 32, 2012, 111.orr

⁵ FRIED, Linda, TANGEN, Cm, WALSTON, J, NEWMAN, Ab, HIRSCH, C, GOTTDIENER, J, “Frailty in older adults: evidence for a phenotype”, *The Journals of Gerontology: Series A*, 56, 2001, 146-56 orr.

⁶ Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española. www.rae.es (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

Termino horiek eramaten dute hauskortasuna prekariedade egoera bat bezala planteatzera, zenbait segurtasun neurririk gabeko egoera bat, erantzuna emateko aukera mugatzen duena. Hauskortasun egoeran dagoen pertsonak apurtzeko arriskua dauka, ahultasun egoera batera sartzekoa, bere egoeran gainbehera jarrai bat sortuz.⁷

Hainbat autorek definizio desberdinak ematen dituzte, hala nola, Fried⁸ eta Brown⁹, baina hauenak aspektu fisikoan jartzen dute fokua, oso antzekoak izanik medikuntza arloan ematen direnei. Baina badago autore bat, zeinak horietaz gain aspektu sozialak ere kontuan hartzen dituen, Brocklehurst deitutakoak. Bere iritziz hauskortasuna da, osasun egoeraren eta behar diren baliabide sozial eta sanitarioen arteko “oreka prekariora”. Oreka horren hausteak pertsona bat mendetasun egoerara eraman lezake, instituzio batean barneratua izatera eta azken pausoan heriotzara. Beraz, beharrezko jotzen du oreka bat egon beharra baliabide sozial eta sanitarioen artean.¹⁰

Esandako guztiarekin lotuta, ikusi daiteke zenbait aspektu komunak direla definizio guztietan eta hura da independentzia mantentzeko gaitasuna galtzea eta mendetasun egoera batera deribatze arriskua. Ondorioz esan daiteke, egoki tratatzen ez bada hauskortasuna dependentziarako lehen pausoa izan daitekeela.¹¹

2.2 Hauskortasuna zahartzaroan eta adinekoen egoera

Aurreko puntuan azaldu denez, hauskortasuna gehien batean adinekoei lotutako egoera bat da, nahiz eta ez du zertan hala izan behar. Hala ere, hauskortasunaren kontzeptua zahartzaroan aztertu baino lehen, beharrezkoa da adineko pertsonen egoera aztertzea.

Azken urteotan, gizartearen bizi esperantzaren igoera eman da, gizartearen lorpen handienetako bat bezala kontsideratu dena. 2017ko INEren datuen arabera, Espainian

⁷ HURKOA FUNDAZIOA, *Informe del proyecto de fragilidad*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018, 6.orr. www.euskadi.eus

⁸ FRIED, Linda, TANGEN, Cm, WALSTON, J, NEWMAN, Ab, HIRSCH, C, GOTTDIENER, J, “Frailty in older adults: evidence for a phenotype, *The Journals of Gerontology: Series A*, 56, 2001, 146-56 orr.

⁹ BROWN, I, RENWICK, R, RAPHAEL, D, “Frailty: constructing a common meaning, definition, and conceptual framework”, *Int J Rehabil Research*, 18, 1995, 93-102 orr.

¹⁰ BROCKLEHURST, Jc, *Brocklehurst's Textbook of Geriatric Medicine and Gerontology*, Churchill Livingstone, Edimburgo, 1985, 982-995 orr.

¹¹ HURKOA FUNDAZIOA, *Informe del proyecto de fragilidad*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018, 11.orr. . www.euskadi.eus

bizi itxaropena 85,7 urtekoa da emakumeentzat eta 80,3 urtekoa gizonezkoentzat.¹² Euskadin zehazki bizi itxaropen handienetako bat jaso da, 86 urte izanik emakumeentzat eta 79,5 urte gizonentzat.¹³ Bere kontrari, jaiotze tasa baxuak gizartearen pixkanakako zahartzea eragiten ari da, egitura sozialetan aldaketa suposatuko duena.

Europa mailan 65 urte baino gehiagoko populazioa %18tik %28ra igoko da 2060rako.¹⁴ Espainian, INEren 2017ko datuen arabera 8.764.204 pertsona daude 65 urte baino gehiagokoak, biztanleriaren %18,8a. 2066rako adineko pertsonen zenbatekoa 14 milioikoa izango da, biztanleriaren %34,6a, beraz ikusi daiteke nabarmenki igoko dela.¹⁵

2013.urtean Euskadiko gizartearen %20,2a 65 urte baino gehiagokoa zen eta bertatik %28,6ak 80 urte baino gehiago zituen.¹⁶

Behin ikusita dagoen adinekoen kopurua eta emango den gizartearen zahartze jarraitua, adinekoengan ematen den hauskortasuna aztertu beharrekoa da. Aurreko puntuan aztertu ahal izan denez, hauskortasuna adinari hertsiki lotua dagoen egoera bat da. Esan bezala erreserba fisiologikoen gainbehera bat suposatzen du, adineko pertsonengan ematea ohikoena delarik, aldaketa metaboliko eta fisikoak azkarragoak baitira etapa honetan eta orokorrean gorputzaren eta osasunaren ahultzea ematen baita.

Gainera aipatu bezala, hauskortasuna dagoela kontsideratzeko dauden irizpideak dira gaixotasun kronikoen existentzia eta 80 urte baino gehiago edukitzea, ikusi daitekeelarik zahartzaroan dauden pertsonen lotutako irizpideak direla. Alde batetik, urte

¹² INE. Mujeres y Hombres en España 2018. www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259926380048&p=1254735110672&pagina me=ProductosYServicios/PYSLayout en eskuragarri. (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

¹³ EUSTAT. Panorama Demográfico, 2014. www.eustat.eus en eskuragarri. (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

¹⁴ ADVANTAGE JA. State of the Arte report on the prevention and management of frailty. 2018 www.advantageja.eu en eskuragarri. (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

¹⁵ AYALA GARCÍA, Alba, PÉREZ DÍAZ, Julio, PUJOL RODRÍGUEZ, Rogelio, “Un perfil de las personas mayores en España 2018. Indicadores Estadísticos básicos”, *Envejecimiento en red*, 17, 2018, 7.orr

¹⁶ EUSTAT. Panorama Demográfico, 2014. www.eustat.eus en eskuragarri. (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

kopurua nabarmenki kokatzen da zahartzaroan eta beste alde batetik, gaixotasun kronikoak orokorrean zahartzaroan agertzen dira. Ondoren, beste irizpideetako bat bakarrik bizitzea da eta Hurkoaren arabera adineko pertsona kopuru handi bat bizi da bakarrik eta bakardadean sentitu. Azkenik aipatu, hauskortasunaren ondorio dela dependentzia edo mendetasuna, eta hura adinarekin igotzen den zerbait da, pixkanaka gaitasun kognitibo eta funtzionalak galtzen joaten baitira. “Estudio sobre las condiciones de vida de las personas de 55 y más años en Euskadi” azterlanaren arabera 65 urte baino gehiago dituzten pertsonen %29ak dio eguneroko jarduerak burutzeko laguntza motaren bat behar dutela eta beraz argi ikusten da dependentzia hau hauskortasunaren adierazgarri dela.¹⁷

Ondorioz, ikusi ahal izan dugunez hauskortasuna adineko pertsonengan nabarmenki ematen den egoera da, gaixotasun kronikoak agertzearen erraztasunagatik, sufritzen dituzten aldaketa metabolikoengatik, eta ez hori bakarrik, asko bakardadean bizitzeagatik eta dependentzi egoeran egoteagatik. Zehazki izugarri ematen den errealitate bat da, bai Europa mailan bai Espainia mailan, eta ikusiz biztanlerian adineko pertsonen kopuruaren igoera emango dela, hazten joango den fenomeno izango da.

Europa mailan, 65 urte baino gehiagoko pertsonen 10etik 1 hauskortasun egoeran aurkitzen da¹⁸ eta Espainian 2014ean 800.000 pertsona aurkitzen ziren hauskortasun egoeran.¹⁹

Hauskortasun egoerak adinekoengan suposatzen du asko prekarietatean bizi direla, kontestu marginaletan edota esklusioan. Atentzio falta daukate eta interlokutore falta, daukaten sare soziala oso murrizta delako familiaren galtzearen eraginez edota beren adineko pertsoez osaturiko komunitateetan bizitzearen eraginez. Esan bezala mendetasun egoeran aurkitzen dira gaitasun kognitibo eta funtzionaletan beherakada bat sufritzen dutelako, asistentzia behar dutelarik hainbat jarduera burutzeko, beraien independentzia ezegonkorra suertatzen delarik. Gainera beraien osasunean kalteak

¹⁷ Eusko Jaurlaritzaren Departamento de Empleo y Política Social, Estudio sobre las condiciones de vida de las personas de 55 y más años en Euskadi, Vitoria-Gasteiz, 2015

¹⁸ ADVANTAGE JA . State of the Arte report on the prevention and management of frailty. 2018 www.advantageja.eu en eskuragarri. (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

¹⁹ Ministerio de Sanidad Español , Consenso de Prevención y Manejo de la Fragilidad, 2014. <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/FragilidadyCaidaspersonamayor.pdf>

sufritzeko arrisku handian aurkitzen dira. Ondorioz, zailtasunak dituzte beraien bizitza eta ekonomia gestionatzeko, beharrezkoa delarik neurriak hartzea pertsonak beren autonomia eta independentzia mantendu dezaten, beraien duintasuna eta borondatea errespetatuz.²⁰

2.3 Adinekoen beharrak

Ikusi denez, hauskortasun egoerak zailtasunak ematen ditu bizitza duin eta egoki bat aurrera eramateko eta ondorioz, adineko pertsona hauek zenbait behar dituzte. Zailtasunak dituztenez beren desioen arabera bizitzeko, ezgaitze legal batera iritsi beharrik gabe, laguntza edo asistentzia bat behar dute beraien bizitza planifikatzeko edo nolabait hura egituratzeko, beraien momentuko baldintzak kontuan hartuz. Horretarako zenbait erabaki garrantzitsu hartu behar dituzte, eta beraz funtsezkoa suertatzen da aholkularitza edo laguntza, bai puntuala izan bai jarraitua izan.

Laguntza beharra duen sektore handiena pertsona oso zaharrek osatzen dute, asistentziazko behar sozialak dituztenak eta horiek eskatzen ez dituztenak ez baitakite zein neurritara duten sarrera edota beraientzat egokiak ez direla pentsatzen baitute. Askotan ez dakite norengana jo, edota konfiantza falta daukate eta beraz ez daukate laguntzarik beren bakardadea hobetzeko, beren beharrak gestionatzeko edo aholkularitza jasotzeko erabakiak hartu ahal izateko. Ondorioz, sozialki ikusezinak bilakatzen dira arrisku gehiago sufritu ditzaketelarik eta duintasuna kaltetua suertatu daitekeelarik.²¹

Egoera hauek prebenitzeko hainbat neurri sozial eta sanitarioak hartzea beharrezkoa da, lehen bai lehen hauskortasun egoerak detektatzeko eta horrela bertan interbenitu pertsonak dituzten behar zehatzei erantzun bat emateko, duten bizi kalitatea handituz eta sufritzen duten bakardade eta prekarietate egoeratik ateraz.

Ikuspegi juridikotik, esan beharra dago aipatzen den eskaera edo behar nagusietako bat jarduerak burutzeko eta erabakiak hartzeko asistentzia bat edukitzearena dela. Izan ere pertsona hauek ez daude ezgai deklaratzeko egoeran, baina zailtasun batzuk dituzte

²⁰ HURKOA FUNDAZIOA, *Informe del proyecto de fragilidad*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018, 5.orrr. www.euskadi.eus

²¹ HURKOA FUNDAZIOA, *Informe del proyecto de fragilidad*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018, 10.orrr. www.euskadi.eus

erabakiak hartzeko eta zenbait egintza burutzeko. Gure sistemak, zuzenean ezgaitzea aurreikusten du beren kabuz egintzak burutu ezin dituztenen pertsonentzat, ordezkari bat jartzen zaielarik erabaki guztietarako.

Gauza da pertsona hauek oraindik gaitasuna mantentzen dutela zenbait egintza burutzeko, beraien borondatea edo nahia adierazteko, eta beraz ez dute ordezkari bat behar, baizik eta laguntzaile bat, asistentzia emango diena burutu ezin dituzten egintzak aurrera eramateko. Horietako bat izan daiteke adibidez, bizilagun junta batera laguntzea, bankuan zenbait gestio egitea edota beren ondasunen kudeaketa burutzea. Ondorioz, beraien egoera laguntzaile edo asistente bat jarriz hobetu daiteke, eta ondorengo puntuetan aztertuko da juridikoki nola eman daitekeen erantzuna behar honi.²²

3. ZUZENBIDE KONPARATUA

3.1 Kuradoretza alemaniarra

Alemaniar zuzenbidean kuradoretzaren figura aurreikusten da pertsonak euren kabuz egintza garrantzitsuak burutu ezin dituztenerako, bai gaixotasun batek, istripu batek, ezgaitasun batek edo adinak eraginda izan. Egintza horiek burutzeko eta beren interes eta eskubideak ordezkatzeko pertsona bat behar dutenez, kuradore bat izendatzen da. 1990ko abenduaren 12ko Legearen bitartez ezgaitzea desagertu zen eta kuradoretza aurreikusten da figura bakar bat bezala. Modu honetan babesaren ematen zaio pertsonari baina ezgaitu gabe, bere egoera zibila aldatzen ez delarik.²³ Kuradoretza legala estatuaren asistentzi sozial legalaren parte da eta haren bitartez zaindutako pertsonen zirkulazio legalean duten parte hartzea bermatu behar da, kaltetuen autodeterminazio eskubidea egikaritzeaz gain.

Bi printzipiok gidatzen dute instituzio hau: beharrezkotasunaren printzipioa, bakarrik benetan behar denean ezarriko da, eta subsidiarioritasun printzipioa, asistente horri

²² SAN SEBASTIAN, Raquel, MARAÑÓN, José Luis, ETXEBERRIA, Bakarne, "Hauskortasun-egoeran dauden adineko pertsonak" *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, 2019.

²³ DOSE, Hans- Joachim, "Development of German Law of "Betreuung"", *4th World Congress on Adult Guardianship Kongresuan*, Alemania, 2016, 1.orr.

lagundua izan behar duen pertsonak burutu ezin dituen funtzioak bakarrik emango zaizkio.²⁴

Kuradorea kaltetuak aurretik botere baten bidez izendatutako pertsona bat izan daiteke edota auzitegiak izendatu dezake bat, azken hau kuradoretza legala izango delarik. Botere bidez norbait izendatzen bada, auzitegiak kuradore legala izendatzea ekiditen da.

Kuradoretza legala (*Rechtliche Betreuung*) Kode Zibil alemaniarreko 1896.artikuluari jasotzen da eta bertan aipatzen da kuradoretza sortuko dela bakarrik, gaixotasun psikiko bat, edota gutxitasun edo ezintasun emozional, intelektual edo korporal bat existitzen bada, eta horren ondorioz pertsonak ezin badu bere kabuz bere egintza propioak burutu.²⁵ Kuradoretza hau beharrezkoa den denborarako bakarrik osatuko da, gehienez 7 urteko iraupena izanik. Denbora hori pasatzean kuradoretzaren beharra berriz baloratzen da eta hura luzatzeko edo kentzeko erabakia hartzen da.

Kuradorea izango dena aukeratzean, kaltetua izan denaren nahia betetzen saiatzen da eta lehenetsunez harekin harreman pertsonala dutenak izendatzen dira. Ez bada inor izendatzen, epaileak egokiak diren beste pertsona batzuk aurkituko ditu eta horretarako normalean Tutela eta Kuradoretzaren Autoritateengana jotzen du iradokizunak eskatuz. Ondorioz kuradoretza bitartean kuradorea epailearen kontrolpean aurkitzen da.²⁶

Kuradore legalak pertsona judizialki eta extrajudizialki ordezkatzeko du. Akzio hauek hala ere kaltetuarekin kontsultatu behar ditu, baina azken honen borondatea ez da kontuan hartuko jarduteko modu hori kaltegarria suertatzen baldin bada berarentzat.²⁷

Aipatu bezala, kuradorea bakarrik izendatu ahal da kaltetua gaixotasun edo ezgaitasun korporal edo mental baten eraginez, gai ez denean pertsonalki bere egintza propioak burutzeko eta beraz laguntza behar duenean. Kuradoretzaren sortzea Tutela eta

²⁴ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 7.orr.

²⁵ DOSE, Hans- Joachim, “Development of German Law of “Betreuung””, *4th World Congress on Adult Guardianship Kongresuan*, Alemania, 2016, 1.orr.

²⁶ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 8.orr.

²⁷ LIPP, Volker, “Erwachsenenschutz und Stellvertretung in Gesundheitsangelegenheiten”, *Deutsch-japanisches Symposium zum Betreuungsrecht Sinposioan*, Tokio, 2013, 4.orr.

Kuradoretzaren Auzitegiak erabakitzen du eta gaixotasun edo mugapen hauek daudela ikusi ahal izateko aholkua eskatzen dio orokorrean psikiatrian eta neurologian aditua denari.

Kuradoretza sortzeko pauso batzuk daude eta lehenengoa komunikazioa da. Ahaideek, bizilagunek, lagunek, ezagunek, medikuek, instituzio sozialek, etxe (*hogar*) edo ospitaleek edota kaltetua lagundu nahi duen edozein pertsonak komunikazio edo proposamen bat egin behar diote Tutela eta Kuradoretza Auzitegiari. Komunikazio horretan, pertsona bat egintzak bere kabuz burutzeko gai ez dela adierazi behar da. Kaltetuak berak ere eskaera bat luzatu diezaioke auzitegiari kuradoretza sortzeko.

Behin komunikazioa eginda prozedura hasten da. Auzitegiak normalean kuradoretza autoritateei kasua argitzeko eskatzen die eta beharrezkoa balitz, kuradore bezala pertsona egoki bat proposatzeko. Kuradoretza autoritateak kaltetuarekin jarriko dira kontaktuan eta agian tartean dauden beste pertsonekin ere, eta erregulatu beharrezkoa zehaztuko dute auzitegiari hura komunikatuz. Era berean, kuradore izateko egokia ematen duen pertsonaren berri emango diote. Kaltetuaren ahaideei eta kaltetuaren konfiantzazko pertsonari prozesuaren berri emango zaie beharrezkoa balitz.²⁸

Kaltetua ez bada gai bere borondatea bere kabuz adierazteko eta erabaki garrantzitsuak hartu behar badira, kuradore prozesal bat izendatuko zaio. Kuradorea izendatzerakoan peritajeek, normalean psikiatra den medikuak egina, paper garrantzitsua jokatzen dute. Perituen eta Kuradoretza Autoritateen informe sozialek kuradoretzaren beharra eta objektuaren eremua zehazten dute eta laguntza behar horren iraupena. Modu horretan ikusiko da ea beharrezkoa dena kuradoretza tenporal bat den edota iraunkorra. Azken erabakia hartu baino lehen, epaileak kaltetua entzungo du bere ohiko eremuan, eta alemana ulertuko ez balu itzultzaile bat jarriko zaio.

Azkenik erabakiaren pausoa gelditzen da. Epaileak, kuradoretzaren berri emango die kaltetuari, kuradoreari, kuradore prozesalari eta kuradoretza autoritateei erresoluzio idatzi baten bitartez. Prozesuan parte hartu duten guztiek eskubidea daukate erresoluzio honen aurrean kexa jartzeko, bai eta legalki ezgai deklaratu direnak ere. Erresoluzioan kuradore zein izango den finkatzen da eta ze egintza motentzako egikaritze gaitasuna

²⁸ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, "El derecho de curatela alemán", *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 9-10orr.

duen. Bakarrik izendatuko da kaltetuak bere kabuz jardun ezin duen bizitzaren aspektuentzat.²⁹

Kuradoreak eremu ezberdinetako egintzak burutu ditzake. Lehenik eta behin, osasunaren gaineko atentzioan parte hartu dezake, kaltetuaren interesetan bere osasunerako beharrezkoak diren neurriak hartzerakoan. Egintza mota hauetan kuradorea laguntzaile edo aholku emaile bezala ikusi behar da. Bakarrik kaltetuak ez duenean gaitasuna erabakitzeke, hau da, ez denean gai planteatutako neurriaren modua, esanahia eta dimentsioa ulertzeko eta bere borondatea horrekiko definitzeko, hartu ahal izango du kuradoreak erabakia bere ordeztu.³⁰

Beste eremu bat ondareztoko kuradoretza da, eremu honen barruan sartzen direlarik egintza finantzario guztiak. Kuradoretzak ez du automatikoki banakoaren gaitasun legal librea mugatzen. Printzipioz, kuradoretza pean aurkitzen diren pertsonak negozioak eta kontratuak independenteki egiteko gai izaten jarraitzen dute.

Hala ere, gaitasun kontraktual hori mugatu daiteke bere ondasunen administrazioan baimen erreserba bat jartzen bada, kaltetuaren gaitasun eta osasunarentzat arrisku nabarmen bat ekiditeko helburuarekin. Kasu honetan, kuradoretza legal pean aurkitzen diren pertsonen burututako kontratuak baliozkoak izateko zintzilik gelditzen dira, kuradoreak erabakiko duelarik kontratuaren baliozkotasunaren gain. Ados baldin badago kontratua baliozkoa izango da, eta aldiz kontra azaltzen bada, nulua deklaratu da. Kuradoretza pean aurkitzen direnentzat, nulua deklaratuak suposatzen du gastuak ez dituztela ordaindu beharko eta ez dituztela ondorio legalik izango.³¹

Kuradoreak gai juridikoetan eta autoritateekin harremanetan ere aritu daiteke. Kasu zailetan, abokatu bat izendatu behar da kuradore bezala edota kuradorea abokatu batekin harremanetan jarri behar da. Era berean posta gaitan parte hartu dezake hura jasoz eta gordez, eta gainera kaltetuaren bizitokia eta bere eguneroko ingurua babestu behar du,

²⁹ LIPP, Volker, "Erwachsenenschutz und Stellvertretung in Gesundheitsangelegenheiten", *Deutsch-japanisches Symposium zum Betreuungsrecht Sinposioan*, Tokio, 2013, 7-8.orr.

³⁰ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, "El derecho de curatela alemán", *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 11.orr.

³¹ LIPP, Volker, "Erwachsenenschutz und Stellvertretung in Gesundheitsangelegenheiten", *Deutsch-japanisches Symposium zum Betreuungsrecht Sinposioan*, Tokio, 2013, 6.orr.

bizitokia aldatzeko eta zentro batean sartzeko epaileari baimena eskatuz. Azkenik, etxearen gaiez arduratu daiteke, hala nola errentamendu kontratuez.

Kuradorea izendatzeko momentuan mota desberdinak bereizi behar dira. Lehena *ad honorem* kuradorea da. Kuradore honek kuradoretza zerbitzua betetzen du bere ofizioa izan gabe, hau da, gastuengatik konpentsazio bat jasotzen du baina ez ordainsari bat. Zenbait baldintza eskatzen zaizkio, aleman hizkuntza dominatzea eta sistema juridiko eta sozialaren inguruko jakintza minimo bat edukitzea.³²

Lehenik, *ad honorem* kuradore izan daitezke senideak eta ondoren lagunak, ezagunak, bizilagunak eta aparteko pertsonak. Izan ere aipatu bezala, kuradore izateko kaltetuarekin gertutasun pertsonala dutenak lehenesten dira, baina pertsona egokia eta prestatua izan behar du eta judizialki ezarriko zaizkion egintzak legalki egiteko baldintza onetan egon behar du. Kuradore izateko gaitasun hau auzitegiak baloratu behar du.

Ad honorem kuradoreaz gain beste mota bat kuradore profesional autonomoa da. Pertsona hauek kualifikazio egoki bat izan behar dute, kaltetuaren beharrezko gaietan legalki asistitza ahalbidetuko diena. Ondoren kuradorea kuradoretza asoziazioen kide izan daiteke. Asoziazio hauek profesionalki aktiboak diren kuradoreei lana ematen diete, beraien langileak izanik. Azkenik, kuratela zentroak edo autoritateak daude, eta hauek publikoak direnez ofiziosz parte hartzen dute ez ohiko kasuetan.³³

Kuradoretzaren gastuak kaltetuak berak asumitu behar ditu, betiere bere ondarea 2600 euroko baino gehiagokoa bada. Kaltetuak ez badu errekurtsorik edo bere sarrerak oso baxuak badira, estatuko kaxak egingo die aurre gastuei.³⁴

Esan bezala, kuradoretza legalaz gain kaltetuak bere kuradorea izendatu dezake ezgaitasun kasurako aurretiko botere baten bitartez (*Betreuungsverfügung*). Neurri prebentibo honen bidez pertsonak bere konfiantzazko pertsona bat izendatu dezake

³² TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 12.orr.

³³ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 13-14.orr.

³⁴ LIPP, Volker, “Erwachsenenschutz und Stellvertretung in Gesundheitsangelegenheiten”, *Deutsch-japanisches Symposium zum Betreuungsrecht Sinposioan*, Tokio, 2013, 11.orr.

kuradore bezala eta bere funtzioak zehaztu instrukzioak ematearekin batera. Pertsona desberdinak izendatu ditzake, bakoitza funtzio desberdin batekin edo zein ez izendatu adierazi dezake. Hala ere, praktikan jarri ahal izango da auzitegiak kuradoretza sortzen duenean.³⁵

3.2 Italiako sostengurako administrazioa

Italiako zuzenbidean, ezgaitzea egoki ez den kasuetan ematea ekiditeko, edo beharrezko asistentzia emateko, figura bat aurreikusten da, “sostengurako administrazioa” (*Amministrazione di Sostengo*) Urtarrilaren 2ko 6/2004 Lege italiarrean arautua. Figura hau asistentzi edo laguntza instituzio moduan sartu zen italiar sisteman, beren baldintza psikofisikoengatik ezgaitzea nahi ez zuten edo egokia irizten ez zuten pertsonentzako babes medio bezala. Bere burua edo bere ondarea zaintzeko laguntza behar duen adin nagusiari dago zuzendua, bere baldintza fisiko edo psikikoetan gutxitze bat sufritzearen ondorioz baina ezgaitasuna suposatzen ez dionak. Horrela, ahultasun egoerak babesten dira pertsonak duen bere izaera garatzeko askatasuna errespetatuz. Era berean, esan beharra dago figura hau behartasun printzipioan oinarritzen dela, hau da, behar den baino babes gehiagorik ez ematea eta bakarrik behar denerako.

Asistentzi figura hau aplikatu ahal izateko presupostu subjektibo eta objektiboak bete behar dira. Codice Civile Italiarrak bere 404.artikuluak dio sostengu administrazioa jaso dezakeen pertsona dela, gaixotasun edota desgaitasun fisiko edo psikiko baten ondorioz, bere interes propioak babesteko partzialki edo tenporalki ezindua aurkitzen dena. Beraz asistentzia figura eman ahal izango da bi baldintza betetzen dituen pertsonarengan: adin nagusia izatea eta ezgaitasuna eragiten ez duen murriztapen bat sufritzea. Ezgaitasuna eragiten ez duen murriztapenari dagokionez, ulertzen da pertsonak ez duela kalteturik bere jokatzeko gaitasuna, edota kaltetua duela baina ez ezgaitzea justifikatzen duen graduan, hau da, ezin dute beren buruaz edo ondareaz zaindu baina bereizketarako gaitasun nahikoa badute.³⁶

³⁵ TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010, 15.orr.

³⁶ FERRANDO, Gilda, “Las figuras de protección de las personas vulnerables tras la reforma introducida por la Ley 6/2004, de 9 de enero” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 162-163 orr.

Azken honek gatazkak eta duda egoerak sortu ditu jurisprudentzia italiarrean. Izan ere desgaitasun psikiko batek pertsonari bere borondatea adierazteko zailtasunak edo ezintasuna eragin diezaioke, laguntzailearekiko komunikazioa zaila edo ezinezkoa eginez eta beraz kendu nahi ez den gaitasun horren egikaritzean arazoak sortu daitezke.

Ondorioz 404.artikuluaren konstituzionaltasuna planteatu zen, ulertzen zelako artikuluak ez zituela zehazten argiak ziren irizpideak sostengurako administrazioa edo tutoretza edo kuradoretza aplikatzea erabakitzeko. Era berean doktrinak kritikatu zuen, epailearen esku uzten baitzuen argi ez zegoen kontzeptu legalaren mugaketa.³⁷ Hala ere, Gorte Konstituzionalak 2005eko abenduaren 9an, epailearen eskumena azpimarratu zuen kasu zehatz bakoitzean sostengurako administrazioaren edo ezgaitzearen presupostu subjektiboa ematen zela erabakitzeko. Gainera, ezgaitzearen izaera subsidiarioa baieztatu zuen administratzaile baten izendapen prozesuaren aurrean. Erabaki honen eraginez administratzailea izendatzen zuten Dekretuen handitze bat eman zen.³⁸

Honen harira aipatu beharra dago, garrantzitsua izan zen 2011ko urriaren 26ko italiar Kasazio Gorteak emandako epaia.³⁹ Kasu honetan pertsona batek Down Syndrome larri bat sufritzen zuen, ez zelarik gai bere izena edo datu pertsonalak emateko. Bere anaiak sostengurako administrazioa aplikatzea eta bere asistente bezala izendatzeko eskatu zuen baina epaileak egokiago irizten zuen ezgaitze prozedura bat irekitzea. Izan ere pertsona kaltetua ez zen gai bere borondatea adierazteko eta beraz ezinezkoa suertatzen zen komunikazioa bere laguntzailearekin. Erabaki hau apelazioan baieztatu zen eta Konstituzio Auzitegiak egokiena ezgaitzea zela adierazi zuen.

Hala ere, Kasazio Gorteak adierazi zuen epaileak ez zuela asistentzia figura baloratu subjektuaren beharrekiko, kontuan hartuz neurriaren malgutasuna eta prozesuaren arintasuna. Bere iritziz, lehentasunez kontuan hartu beharrekoa da onuradunak

³⁷ STANZIONE, P., "Amministrazione di sostegno, interdizione ed inabilitazione: rapporti ed interazione", 24.orr http://www.comparazionedirittocivile.it/prova/files/stanzione_sostegno.pdf eskuragarri (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

³⁸ Sentencia 440/2005 de la Corte Constitucional de 9 de diciembre de 2005, <http://www.altalex.com/index.php?idnot=10151> (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

³⁹ Sentencia de la Corte de Casación de 26 de octubre de 2011 n.22332. http://www.territorioaslmilano.progettoads.net/allegati/ADS_t2_allegati/337/FILE_Allegato_sentenza.pdf (azkenekoz kontsultatua: 2019/05/10)

egikaritutako jarduera mota. Izan ere kasu honetan, administratu beharrekoa oso sinplea zen, hura kaltetzeko mehatxu handirik gabekoa, eta administratzailea anaia izanik eta beregan konfiantza edukirik egokiago irizten zuen ez ezgaitzea. Gainera adierazi zuen, ahultasun egoeran dagoen pertsonaren eta administratzailearen arteko komunikazioa, 410.artikuluaren aurreikusia, ez zela beti beharrezkoa eta ez dela eman behar ezgaitasun psikiko batek eragozten duenean, asistentzia ez baitago aurreikusia bakarrik ezgaitasun fisikoentzat, psikikoentzat ere.

Aipatu bezala, mota honetako erabakiek figura honen aplikatze masiboa suposatu zuen eta hasiera batean ezgaitzearekiko osagarri izan beharreko neurri bat, ia erabiltzen den bakarra izatera igaro da epaileen aplikazioaren eraginez. Ondorioz, doktrinaren gehiengoak erreforma legal bat eskatzen du ezgaitzea desagerrarazteko eta asistentzi figura garatzeko.⁴⁰

Presupostu objektiboari dagokionez, lege italiarrak ez du zehazki ezer aurreikusten, baina auzitegiek emandako erresoluzioetatik ondorioztatu daiteke hura ere kontuan hartzen dela, eta hau izango da ahula den pertsonaren ondarearen konplexutasuna edota garatzen zituen jardueren izaera. Aipatutako kasuan, adibidez, Gorteak nahikoa kontsideratzen zuen anaia administratzaile izatea subjektu ahularen ondare beharrentzako eta eramaten zuen bizimodurako. Izan ere gerta daiteke ondarea garrantzitsua edo kudeatzen zaila izatea eta oraindik gaitasuna mantentzen duen pertsonak hura kaltetu ahal duten ekintzak burutzea, kasu horietan ezgaitzea egokiago suertatu daitekeelarik.

Honen aurrean, Kasazio Gorteak bere 2006ko ekainaren 12ko erresoluzioan adierazi zuen, sostengurako administrazioa edo ezgaitzea dagokiola erabakitzean, irizpide kuantitatiboa, gaixotasun gradu edo intentsitateari edota interes propioak kudeatzeko ezintasunari dagozkiona, ez dela determinantea, gerta daitekeela sostengurako administrazioa ezartzea mugapen garrantzitsua duen pertsona bati. Irizpide kuantitatibo horri irizpide funtzionala gehitu behar zaio, zeinaren arabera kontuan hartu behar den ze administrazio egintza mota burutu behar duen administratzaileak, sinpleak, subjektuaren

⁴⁰ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1619orr.

interesak arriskuan jarriko ez dituztenak, edota konplexuak, non subjektuak bere ondarea kaltetu dezaketen egintzak burutu ahal izango dituen.⁴¹

Beraz, epaile italiarrek administratzaile bat izendatzeko presupostu objektiboa aztertzean, ez du bakarrik kontuan hartzen ahula den pertsonaren ondarearen balioa, baizik eta ondare hori gestionatzearen konplexutasuna, zeinak jakintza tekniko batzuk eskatuko dituen.

Asistente edo administratzailea izendatzeko prozedura borondatezko jurisdikzioaren bitartez burutzen da, herritarrei hura gerturatzeko eta prozesu horretarako sarrera sinplifikatzeko helburuarekin egin zena. Hala, nahikoa izango da borondatezko jurisdikziora jotzea beharrezko presupostuen existentzia alegatuz eta epaileari asistente bat izendatzeko eskatuz. Zehazki, ordenamendu italiarrean, prozedura hauek ezagutzeko eskudunak epaile tutelarrak dira, espezializatuak daudenak. Behin eskaera egiten denean, data horretatik kontatzen hasita, epaileak 70 eguneko epea dauka sostengurako administratzaile bat izendatzeko Dekretu deitutako dokumentu baten bitartez, exekutiboa izango dena, hala baitio Codice Civileko 405.artikuluak.

Epaile tutelarrak eskaera egin duenari entzun beharko dio eta bere borondatea eta eskaerak kontuan hartu beharko ditu, bere ongizatearen aurkakoak ez diren heinean. Era berean, epaileak ofizioz, froga medikoen edo beste izaeradunen praktikaz eta egiaztapenez disposatu ahal izango du egoki irizten duen heinean erresoluzioa idazteko. Gainera izendapen dekretua aldatu edo osatu dezake edozein momentutan. Behin dagokion informazioa jasota eta pertsona ahularen gertukoak entzunda, azken hau derrigorrezkoa ez delarik, epaileak eskaerari erantzuna emango dio.

Legitimazio aktiboari dagokionez, lehena onuraduna edo babesarria behar duen pertsona izango da. Pertsona honen barruan sartzen da bere gaitasunean mugapen bat jasan duen adin nagusia, adin txikiko emantzipatu gabea eta azkenik, tutoretza edo kuradoretzapean aurkitzen dena eta bere babes sisteman aldaketa bat nahi duena, bere egoeran aldaketak eman direlako.

Tutoretzaren artikuluei bidalketa eginez, legitimazio aktiboa ere dute beharrezko dagoenaren ahaideek, laugarren graduraino odolkidetasunaz eta bigarren graduraino

⁴¹ Sentencia de la Corte de Casación de 12 de junio de 2006, núm. 13584
<http://www.altalex.com/index.php?idnot=10523> (azkeneko kontsultatua: 2019/05/10)

afinitatez, ezkontideak edo egitatezko bikotekideak, eta ezgaitzea eskatzeko legitimatuak daudenak, tutoreak, kuradoreak eta Ministeritza Fiskalak. Azkenik, legedi italiarrak legitimazioa ematen die osasun zerbitzuei eta zerbitzu sozialei beren kargura badute hura behar duen pertsona bat.

Epaile tutelarrak eman beharreko Dekretuaren edukia italiar kode zibileko 405.artikuluari jaso dago. Lehenik eta behin, dekretuak neurri kautelarrak jasotzearen aukera aurreikusten da, beharrezkoak edo urgenteak kontsideratzen badira. Honekin batera, derrigorrez jaso beharko du: pertsona onuradunaren eta sostengurako administratzailearen datu pertsonalak, enkarguaren iraupena, zehaztugabea izan daitekeena, agindutakoaren objektua eta ze epealdietan informatu beharko dion epaileari burututako ekintzei eta onuradunaren egoerari buruz.

Esan beharra dago funtzioen inguruko italiar formula legala oso zabala dela, eta asistenteari eman ahal zaizkion funtzioak oso desberdinak izan daitezkeela. Burutu ditzakeen egintzetan hiru multzo desberdinak behar dira eta hauek agindutakoaren objektua osatuko dute.

Lehenik, egintza batzuk egongo dira non administratzaileak onuraduna ordezkaturiko duen, eta ulertzen da ordezpen totala izango dela, eskusiboa eta onuradunak ezingo ditu beraz inolaz ere burutu. Bigarren, egintza mota batzuetan asistentzia bakarrik emango dio onuradunari. Azkenik egintza batzuk egongo dira non ezingo duen interbenitu, eskusiboki onuradunarenak izango baitira. Honetaz gain, ez ohiko egintzen kasuan, asistenteak epaileari baimena eskatu beharko dio haiek burutzeko, halakoak izanik, balio handia duten ondasunen eskuratzea, kapitalak kobratzea, hipotekak sortzea, oinordetza onartzea etab.

Epaileak kasu bakoitza aztertuta hiru egintza multzo hauek zeintzuk diren zehaztuko du, Dekretuan adieraziz zeintzuk burutzen dituen asistenteak, zeintzuk onuradunak eta zeinetan asistentzia ematera mugatzen den.⁴²

⁴² FERRANDO, Gilda, "Las figuras de protección de las personas vulnerables tras la reforma introducida por la Ley 6/2004, de 9 de enero" José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 164-165orr.

Asistenteak onuradunaren interesen alde jardun behar du beti, bere ondasun eta ondare interesen eta bere eskubideen egikaritzaren defentsan. Era berean, onuradunari eta epaileari burututako egintzen berri eman behar die eta onuraduna entzun.⁴³

Sostengurako administrazio honen izendapena ez da erregistroan inskribatu beharrekoa, kontsideratzen baita ez duela eraginik onuradunaren egoera zibilean. Beraz, erregistro publizitatea margeneko nota bidez burutzen da, Codice Civileko 405.artikuluari jarraiki. Publizitatea hau beharrezkoa da, hirugarrenek jakin behar baitute ea onuraduna gai den zenbait egintza burutzeko edota bere administratzaileak burutu behar dituen baliozkoak izan daitezten.

Asistentea izango den pertsona izendatzerako orduan, ponderazioa burutu behar da onuradunaren borondatearen artean eta egokia den norbait aukeratzearen artean. Italiar ordenamenduak aurreikusten du onuradunak etorkizunera begira, ezgaitasun posible baten aurrean, aukeratu dezakeela zeinek burutuko duen administratzaile kargua eta hura egin dezake notaritza dokumentu bitartez edo egiaztatutako dokumentu pribatu bidez. Epaille tutelarra izendapen honi lotua geratzen da printzipioz.

Hala ere, italiar kode zibileko 408.artikuluak askatasuna ematen dio epaileari onuradunaren borondatea ez jarraitzea erabakitzeke, eta nahi duena izendatzeko eskumena ematen dio. Hau burutu ahal izateko kausa larri bat egon beharko du tartean eta diskrezionalitate hau muga batzuekin burutu beharko da. Hasteko, 410.artikuluak karguaren 10 urteko epea ezartzen du gehienez, administratzailea familiako kidea ez den kasurako. Gainera, 405.artikuluak dekretuaren edukia mugatzen du, eta beraz epaileak objektua eta baldintzak zehaztu eta mugatu behar ditu.

Asistentea izateko, legegile italiarrak lehentasuna ematen dio pertsona fisikoak izateari, zehazki familiako kideak, baina 408.artikuluak ez du baztertzen hura aditu bat izatearen aukera. Azken hau pertsona bat edo gehiago eta fisikoa zein juridikoa izan daiteke, eta

⁴³ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1642orr.

gestionatzen zailak diren ondaretarako eta interes kontraerriak daudenerako aurreikusten da.⁴⁴

Asistenteak burututako egintzak eta onuradunak burututakoak deusez deklaratu daitezke, legean ezarritako disposizioen aurkakoak badira edota epaileak ezarritako enkarguen mugetatik kanpo burututakoak badira, 412.artikuluari jarraiki. Era berean, asistenteari erantzukizuna eskatu ahal izango zaio egintza kaltegarriak burutzen baditu, informatzeko betebeharrak ez badu betetzen edo neglijentziaz jarduten badu onuradunaren kaltetan, Codice Civileko 410.artikuluari jarraiki.

4.NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA: 2006 NEW YORKEKO KONBENTZIOA

Nazioarteko eremuan, 2006ko New Yorkeko Konbentzioa, Pertsona Desgaituen Eskubide eta Askatasunei buruzkoa da aipagarri, ikuspegi berri bat ematen baitu gaitasun juridikoaren inguruan eta orokorrean pertsona desgaituen eskubideen inguruan.⁴⁵

Desgaitasunaren inguruan, estatuak hasi ziren beren barne ordenamenduak egokitzen pertsona desgaituen eskubideak bermatzeko. Ondorioz, nazioarteko organismo baten babesa faltan botatzen zen desgaituen eskubideei zegokionez, mundu mailan ordura arte emandako babesa soft law kontsideratzen baitzen.⁴⁶

Honen aurrean, autoreek mekanismo horiek nahiko ez zirela irizten zuten eta beharrezkoa jo maila globaleko Konbentzio bat, zabala eta integrala, zeinak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak babestu eta bultzatuko zituen, estatuetan hasitako lana zurrunduz. Izan ere, konbentzio hau sinatuko luketen estatuak hura betetzera behartuak egongo liriteke, gaia eta eskubideak denen artean homogeneizatu.

⁴⁴ SAVORANI, Giovanna, "La designación del administrador de apoyo en previsión de la futura incapacidad en el derecho italiano" José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011 333-334orr.

⁴⁵ Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, hecho en Nueva York el 13 de diciembre de 2006.

⁴⁶ GARCÍA PONS, Antonio, Las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español La convención internacional de 13 de diciembre de 2006, Editorial Universitaria Ramón Areces, Madrid, 2008, 31-32.orr.

Aipatutako guzti honen ondorioz, 2006ko Nueva Yorkeko Konbentzioa, Pertsona Desgaituen Eskubide eta Askatasunei buruzkoa onartu zen Nazio Batuetan. Pertsona desgaituei buruzko Nazio Batuen sistemako lehen nazioarteko konbentzioa izan zen, komite berezi batek idatzia. Era berean, estatuez gain Nazioarteko Integrazio Erakundeak sinatu zezaketen lehen konbentzioa izan zen, eta beraz 2007ko martxoaren 30ean Europar Komunitateak sinatu egin zuen.⁴⁷ Espainiak inongo erreserbarik jarri gabe, 2007ko martxoaren 23an onartu zituen bai Konbentzioa, bai harekin batera emandako Protokolo osagarria, eta beraz ordenamenduaren parte dira Espainiak bertan jasotakoa bete behar duelarik.

Konbentzioaren helburua bere 1.artikuluari jasotzen da eta pertsona desgaituen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztien gozatzeko osoa, bultzatu, babestu eta ziurtatzea da, berdintasun baldintzetan eta beraien duintasunarekiko errespetua bultzatuz. Beraz, pertsona desgaituen parte hartzea eta integrazio soziala sustatzen du, beraien independentzia, autonomia indibiduala eta gaitasun legala. Honen aurrean, estatuei hauek bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeri behartzen ditu, eta beharrezkoa suertatuko balitz, beraien legiazioa begiratzera bertan jasotakoari egokitzeko.⁴⁸

Konbentzioak pertsona desgaituei zentzu zabal batean egiten die erreferentzia, barne hartuz ezgaiak diren pertsonak beren burua gobernatu ezin dutelako, dependentzi egoeran dauden pertsonak eta desgaitasun fisiko bat sufritzen dutenak.⁴⁹

Konbentzioak, ikusiz bere helburuetako bat pertsona desgaituen autonomia eta parte hartzea sustatzea dela, planteamendu berri bat proposatzen du gaitasun juridikoaren inguruan. Izan ere autonomia printzipioa bi ikuspegitan aipatzen du Konbentzioak, autonomia fisikoa eta autonomia bolitiboa, azken hau gaitasun juridikoarekin lotuta

⁴⁷ GARCÍA PONS, Antonio, Las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español La convención internacional de 13 de diciembre de 2006, Editorial Universitaria Ramón Areces, Madrid, 2008,34. orr.

⁴⁸ GARCÍA PONS, Antonio, Las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español La convención internacional de 13 de diciembre de 2006, Editorial Universitaria Ramón Areces, Madrid, 2008, 39-41orr.

⁴⁹ PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 203. orr.

egonik. Autonomia fisikoari dagokionez Konbentzioak bere 9.artikuluaren dio estatuek barrera eta oztopo fisikoak kendu behar dituztela pertsona desgaituek modu independente batean bizi ahal izateko, aspektu guztietan parte hartzea ahalbidetuz.⁵⁰

Autonomia- borondatearenak erabakiak hartzeari eragiten dio, eta beraz lan honetan garrantzi gehiena duena da. Hau bitan banatzen da ere, alde batetik autonomia prebentiboa dagoelarik, eta bestetik autonomia- berezkoa. Autonomia prebentiboa pertsonaren borondatearekiko errespetuan adierazten da, zeinak erabakiko duen ze modelo edo sistema ezartzen den gaitasuna galduko lukeen kasuan eta zeinek burutuko lituzkeen laguntza edo ordezkatzeko funtzioak. Autonomia berezkoak erreferentzia egiten dio pertsonak bere eskubide pertsonalen gain duen titularitateari, nahiz eta laguntza edo ordezkatzeko sistema bat martxan jarrita eduki, gaitasun naturala errespetatu behar baita.⁵¹

Konbentzioak autonomia honi egiten dio erreferentzia bere 3.artikuluaren, non printzipio bezala jasotzen dituen pertsona desgaituen duintasunarekiko errespetua, autonomia indibiduala, barne hartuz erabaki propioak hartzeko askatasuna, eta pertsonen independentzia. Baina artikulurik garrantzitsuenak 12.artikuluaren da, autonomia bolutibo horri edo gaitasun juridikoari erreferentzia egiten diona

Hasteko 12.1ak dio estatuek baieztatzen dutela, pertsona desgaituek eskubidea dutela edozein lekutan beren pertsonalitate juridikoa errekonozitua izateko. Ondoren 12.2ak dio, pertsona desgaituek gaitasun juridikoa daukatela beste pertsonen baldintza berdinetan beraien bizitzako aspektu guztietan. 12.3ak jasotzen du estatuek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituztela pertsona desgaituei beharrezkoa duten laguntza emateko beren gaitasun juridikoaren egikaritzan, beraien borondatea, eskubideak eta preferentziak errespetatuz.

Azken honek zailtasun gehien planteatu zituen prezeptua izan zen, zehazki gaitasun juridikoaren egikaritzaren espresioaren eraginez, estatu desberdinetan esanahi desberdinak baititu. Izan ere, ez zaio erreferentzia egiten Espainiako ordenamenduan aipatzen den

⁵⁰ PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 197. orr.

⁵¹ PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 198. orr.

jarduteko gaitasunari (*capacidad de obrar*). Espainiar ordenamenduan, gaitasun juridikoak subjektuaren jarrera estatiko bat suposatzen du, hau da, pertsonari, pertsona izateagatik eta duen duintasunagatik, ordenamendu juridikoak gaitasun juridikoa ematen dio bere eremu pertsonalean, familiarrean eta ondarezkoan. Baina gaitasun juridiko hau ez da nahastu behar obratzeko gaitasunarekin edo egikaritze gaitasunarekin.

Kontzeptu honek erreferentzia egiten dio pertsonak bere kabuz bere eskubideetatik eratortzen diren botere eta fakultateak martxan jartzeko aptitudeari edo bere kabuz bere betebeharrak juridikoak betetzeko gaitasunari, hau da, erreferentzia egiten dio egintza juridikoak modu zuzen eta baliozko batean burutu ahal izateko gaitasunari. Beraz, obratzeko gaitasuna duen pertsonak bere kabuz egikaritu ditzake bere eskubideak eta modu autonomoan jardun dezake bizitze juridikoan. Espainiar zuzenbidean, gaitasun juridikoa ez bezala, obratzeko gaitasuna mugatu daiteke, jarduteko gaitasun osoa edo mugatua desberdinduz.

Obratzeko gaitasun osoak suposatzen du, pertsonak bere esfera juridikoaren interesean bere kabuz edozein egintza burutu dezakeela. Hau adin nagusia bilakatzean lortzen da eta disposatzeko gaitasuna ere suposatzen du. Mugatuan aldiz, pertsonak ezin ditu zenbait egintza bere kabuz burutu, baizik eta asistentzia bat behar du. Ondorioz, espainiar ordenamenduan gaitasun juridikoari erreferentzia egitean gozatze gaitasun edo eskubideari egiten dio erreferentzia, hau da titulartasun hutsari, hau izanik aurretik aipatutako autonomia berezkoa, espainiar ordenamenduan arazorik gabe errekonozitzen dena. Espainian pertsona desgaitua, halakoa ez den pertsonaren eskubide pertsonal eta ondarezkoen titularra da.⁵²

Konbentzioak bere aldetik, gaitasun juridikoa aipatzean, hura espainiar obratzeko gaitasun bezala ulertu behar da. Behin kontzeptua argituta, 12.artikuluaren jasotakoa aztertu behar da. Esan bezala, artikuluak dio pertsona desgaituei beharrezkoa duten laguntza eman behar zaiela beraien gaitasun juridikoa egikaritzekoan, inongo momentuan ez duelarik aipatzen hura ordezkatu behar denik.

⁵² DE ASIS ROIG, Rafael, BARRANCO AVILÉS, María del Carmen, PALACIOS RIZZO, Agustina, “Algunas reflexiones generales del impacto de la Convención Internacional de los Derechos de las Personas con Discapacidad en el Derecho Español”, Patricia, CUENCA GÓMEZ (Zuzendaria), *Estudios sobre el impacto de la convención internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español*, Dykinson, Madrid, 2011, 29.orr

Esan bezala lehen betekizuna da pertsonaren borondatea eta preferentziak errespetatu behar direla eta esan daiteke hau espainiar ordenamenduan nolabait betetzen dela hurrengo puntuan sakonago aztertuko delarik. Baina honetaz gain, 12.artikuluak dio beharrezko laguntza eman ahal izateko neurriek proportzionaltasun eta tenporalitate baldintzak bete behar dituztela. Proportzionalitateak suposatzen du laguntza neurriak graduatuak egon behar direla, eta pertsonaren gaitasun galera mailari egokituak. Tenporalitateak bere aldetik suposatzen du, laguntza neurri horiek autoritate edo organo judizial eskudun baten kontrolpean egon behar direla, independentea eta inpartziala izan behar duena, azterketa periodikoak burutu behar dituelarik.⁵³

Konbentzioak jasotzen duen gaitasun juridikoaren ikuspegi berri honen ondorioz, planteatu da ea espainiar ordenamenduan jasotako tresnak egokiak diren konbentzioko helburuak eta eskakizunak betetzeko. Gure kasuari ekarriz, Konbentzioa aplikagarri zaie dependentzian dauden pertsonari, adinekoak halakoak izanik, eta beraz Konbentzioaren arabera beren autonomia babestu behar da eta beraien gaitasun juridikoaren egikaritzan beharrezkoa duten laguntza eman.

Autore askoren aburuz espainiar ordenamenduan aurreikusitako mekanismoak ez dira egokiak hau betetzeko, baina bai aipatzen da Katalunian jaso berri den asistentzia figura, zeinak printzipioz Konbentzioaren arauak gehiago errespetatzen dituen.⁵⁴ Hurrengo puntuan aipatutako azken figura hau eta espainiar ordenamenduko gainerako mekanismoen azterketa burutuko da, Konbentzioarekin bat datozen edo hutsuneren bat dagoen aztertuz.

⁵³ PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011 200.orr.

⁵⁴ DE ASIS ROIG, Rafael, BARRANCO AVILÉS, María del Carmen, PALACIOS RIZZO, Agustina, “Algunas reflexiones generales del impacto de la Convención Internacional de los Derechos de las Personas con Discapacidad en el Derecho Español”, Patricia, CUENCA GÓMEZ (Zuzendaria), *Estudios sobre el impacto de la convención internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español*, Dykinson, Madrid, 2011, 32-33.orr.

5.ESPAINIAR ORDENAMENDUA

5.1 Kataluniako asistentzi figura

Aurreko puntuan aipatu bezala, Kataluniako zuzenbideak, komunak jasotzen ez duen figura bat aurreikusten du, asistentzi figura, Konbentzioko printzipioei hobeki egokitzen zaiena.

Uztailaren 29ko 25/2010 Legearen bitartez Kataluniako Kode Zibilaren Bigarren Liburua onartu zen, familia eta pertsonari buruzkoa. Bere aitzinsolasean jasotzen du, ordenamendu zibilak posible egin behar duela pertsona guztiek beren bizitza proiektua garatu ahal izatea eta bizitza sozialean parte hartu ahal izatea, berdintasun osoz bere eskubide eta betebeharretan, inongo kalterik egin gabe beren adin edo urritasun mental edo fisikoen eraginez beharko lituzketen neurri bereziei. Ondorioz, 2011tik aurrera Katalunian indarrean dagoen ordenamenduak indarra jartzen du pertsonen gaitasun naturalean eta beraien autonomiarekiko errespetuan, bai eremu pertsonalean, bai familiarrean, Konbentzioarekin bat etorritik.

Testuinguru honetan asistentzi figura sartu zen, babes neurri moduan pertsonak bere baldintza psikofisikoen eraginez euren kabuz egintzak burutu ezin dituztenerako, ezgaitzea eta tutela posible ez direnean eta egokiak ere ez.⁵⁵ Italiar figuraren antzera, hitzaurrean adierazten da asistentzia pertsona adinduei zuzendua dagoela, haren beharra badute beren buruaz edo ondareaz egoki zaintzeko, ezgaitzeko nahikoa ez den beren gaitasun fisiko edo psikikoetan murriztapen bat jasatearen eraginez. Beraz, babes neurri hau pertsonaren izaeraren garapen askean oinarritzen da, fokua jarritz babes behar duten zaurgarritasun egoeratan gaitasun falta batean baino. Argi ikusi daiteke planteamendu honek Konbentzioan ezarritakoa errespetatzen duela, fokua jartzen baitu pertsonak bere autonomia mantentzean eta bere parte hartzea mugatua ez ikustean.⁵⁶

Figura hau eratzeko, zuzenbide konparatura jo da eta Bigarren Liburu honen autoreek adierazi dute, kataluniar asistentziak oinarria duela zuzenbide alemaniarreko *Betreuung*

⁵⁵ FERRER, Antonio Manuel, "Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak", *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

⁵⁶ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, "La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad", *ADC*, 66, 2013, 1607.orr.

figuran, aurretik zabal azaldu dena. Era berean, kontuan izanik tresna italiarrak oinarri duela ere tresna alemaniarra, katalanak inspirazio handia du figura italiarrean ere. Figura alemaniarra ardatz bezala hartuz, ezgaitze figuraren ezabapena planteatu izan zen baina azkenean baztertu egin zen, espainiar gizartearentzat goiztiarregia kontsideratu zelako. Ondorioz, kode zibil katalanak tutela eta kuradoretza mantentzen ditu eta era berean asistentzi figura barneratu.⁵⁷

Presupostu subjektiboari dagokionez, Kode Zibil Katalaneko 226.1 artikulua dio pertsona asistitua edo lagundua izan behar dela, hura behar duen pertsona adin nagusia bere buruaz edo ondasunez egoki zaintzeko gai ez denean, ezgaitzea posible egiten ez duten gaitasun fisiko edo psikikoetan murriztapen bat sufritzeagatik. Beraz, asistentzia lortu dezake hura behar duen pertsonak, ez hura nahi duenak.

Italiar figuran ez bezala, zuzenbide katalanak bakarrik pertsona adin nagusiak aipatzen ditu, eta ez dio erreferentziarik egiten adin txikiko emantzipatuei. Tutelaren kasuan, kodeak bai aurreikusten du hura aurreratzeko aukera adin nagusi izatera iritsi baino lehen, guraso boterea luzatuz eta seme-alaba ezgaituz, efektuak izanik honek adin nagusitasunera iristean. Baina esan bezala asistentziarentzat ez du hau ezartzen eta beraz hutsune bat sortzen da eremu honetan.

Idea klabea da pertsonak ez duela kalteturik bere obratzeko gaitasuna, edota kaltetua du baina ez ezgaitzea justifikatzen duen gradu batean. Pertsona hauek ezin dute beren buruaz edo ondasunez egoki zaindu baina bereizketarako gaitasun nahikoa badute.⁵⁸ Aurretik aipatu bezala, gerta daiteke murriztapen fisiko baten eraginez pertsona bere borondatea adierazteko gai ez izatea eta beraz bere asistentearekin komunikazioa posible ez izatea. Kode Zibil katalanak bere 221-4 artikuluan espresuki aipatzen du asistentzia beharra duenari informatzeko obligazioa eta bere borondatea errespetatzekoa, komunikatu ezin bada betearazpena zailduz. Italian ez bezala, figura

⁵⁷ RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco., “La reforma del Derecho de familia en el Código civil de Cataluña”, Reyes BARRADA ORELLANA , Martín GARRIDO MELERO, eta Sergio NASARRE AZNAR (Koordinatzailea), *El nuevo Derecho de la persona y de la familia Libro segundo del Código Civil de Cataluña*, Bosch, Barcelona, 2011, 69.orr

⁵⁸ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1614-15.orr.

honek denbora gutxi darama indarrean Katalunian eta beraz oraindik ez dago jurisprudenziaz hutsune hau zehazteko, arazo bat planteatuz.⁵⁹

Katalunian, asistente bat ezartzea edota ezgaitu behar izatea erabakitzean burutu behar den bereizketa, ezgaitzea posible egiten ez duen murriztapen fisiko edo psikikoaren eta 200.artikuluaren jasotako izaera iraunkorreko gaixotasun edo urritasun fisiko zein psikikoaren artekoa da. Beraz, aztertu beharra dago ea murriztapena ezgaitzeko nahikoa den edo ez, hau betiere Konbentzioaren markoan burutuz eta beraz pertsonen babesa eskainiz beren autonomiari kalterik txikiena eraginez.⁶⁰

Presupostu objektiboari dagokionez, kontuan hartu behar da ea epailearen erabakian eraginik duen lagundua izan behar duen pertsonaren ondare konplexutasuna edota garatzen zuen jardueraren ordenamendu katalanean ez da ezer aipatzen eta esan bezala figura oso berria izanik, jurisprudenziaz ez du ezer zehaztu honen inguruan. Italiar figuraren analogia burutuko balitz eta hura modelo bezala hartu, bertan oinarri baitu, presupostu objektiboa bai kontuan hartuko litzateke, garrantzia izanik lagunduaren ondare konplexutasuna eta garatzen zuen jardueraren, aurreko puntuan zabalki azaldu den moduan.

Kode Zibil katalaneko 226-1 artikulua arabera asistente horren izendapena borondatezko jurisdikzioaren bitartez burutuko da, hiritarrei prozedurarako sarrera sinplifikatzeko eta errazteko helburuarekin. Izan ere, asistentziaren bitartez ez da pertsonaren egoera zibila aldatzen eta beraz nahikoa da eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzea eta autoritate judizialari asistente bat izendatzea eskatzea. Hala ere, Kataluniaren kasuan planteamendu hau motz gelditzen da, hasteko legedi prozesalaren garapena estatuaren eskumenekoa baita eta ondoren ez duelako burutu arauaren garapena. Adibidez, ez du zehaztu zein izan behar den erresoluzioaren edukia eta beraz ez dago segurtasun juridikorik figura ezartzean erabaki beharrekoan.

⁵⁹ FERRER, Antonio Manuel, "Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak", *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

⁶⁰ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, "La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad", *ADC*, 66, 2013, 1618.orr.

Honetaz gain, asistentziaren ezarpena erabaki behar duen epailea ez da epaile espezializatu bat, baizik eta eskuduna, pertsonaren egoitzako lehen instantziako epailea da, eta berak emandako auto bidez osatuko da figura. Erabaki hau justifikatzeko adierazi da, ez dagoela espezializazioa justifikatzen duten prozedura kopuru nahikoa, baina arrazoi hau ez da egokia kontsideratzen, garrantzitsuena baita zerbitzuaren kalitatea bermatzea eta are gehiago hura behar duten pertsonak zaurgarritasun egoeran daudenak direnean. Gainera, lanaren hasieran aipatu da gizartearen zahartze handia emango dela etorkizunean eta beraz zaurgarritasun egoeran aurkituko diren pertsonen igoera emango da, prozedura honen kopurua igoaraziz.⁶¹

Kataluniar doktrinaren arabera, legegileak ez baitu egoki zehazten, borondatezko jurisdikzioko prozedura honen helburua da murriztapen bat eman denaren baieztapen judiziala burutzea, hura ebaluatzea eta asistentziaren egokitasuna aztertzea, murriztapenak autonomian eragiten duen gutxitzea konpontzeko. Adostasuna ageri da Ministeritza Fiskalaren parte hartzean, babestu beharreko pertsona bat baitago, duen murriztapengatik edota agian ezgaitze prozedura bat behar izateagatik. Abokatuaren beharrari dagokionez, Adin Txikikoaren Babes Juridikoaren Legearen analogia burutuz ez da beharreko jotzen, betiere epaileak eta Fiskalak bere interesean jarduten badute, dagozkion frogak eta diligentziak ofizioz burutuz eta bere eskubideak jakinaraziz. Prozedura hau ezingo da hasi jada ezgaitze prozedura bat hasita badago.⁶²

Asistentzia eskatzeko legitimazioari dagokionez, zuzenbide katalanean legitimazio aktiboa duen bakarra bere burua edo ondarea zaindu ezin duen pertsona da. Beste inork ezingo du asistente bat izendatzeko prozedura hasi eta era berean autoritate judizialak ezin du ofizioz prozedura bat ireki. Pertsona asistituari ez zaio obratzeko gaitasuna kendu eta beraz, ezin zaio asistentzia bat inposatu. Gainera, figura honen oinarrian aurkitzen da pertsona horren borondate espresua, zeinak kontsideratzen duen zaurgarritasun egoeran dagoela eta beraz gai izanik asistentzia edo laguntza eskatzen du. Planteamendu hau italiar eta alemaniar figuren guztiz desberdina da, hauek hainbat pertsona desberdin legitimatzen baitituzte asistentzia eskatzeko, horrela laguntza

⁶¹ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1622-1623.orr.

⁶² DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1625.orr.

beharrean dagoen pertsona baten ezagutza izanik, zuzenean jarri dezakete martxan babes neurria.⁶³

Epaileak legitimazioa bakarrik ukatu ahal izango du asistentzia eskatzen duen pertsonak ezgaitasun nabarmen bat baldin badu. Era berean, gerta daiteke pertsonak notaritza botere baten bitartez beste pertsona bat ahalduntzea etorkizunean berak ezin duenerako, asistentzi prozedura bat hasi dezan, oso egokia izanik bere borondatea adierazteko zailtasunak dituzten pertsonentzat adibidez.⁶⁴

Epaileak emandako erresoluzioan, asistentea izendatuko da eta bere funtzioen eremua zehaztuko da, beraz babes tresna definitzen du. Zaurgarri den pertsona horren interesen kudeaketa egokiak erresoluzio horretan du oinarria, eta beraz asistenteak bertan ezarritakoa bete beharko du eta harengandik erantzun autoritate judizialaren aurrean. Katalunian, ematen den babesa zehazten da pertsona asistituak burututako zenbait egintzen efikazia ezan, erga omnes aurkajarri daitekeena.

Kode Zibil katalanak, bere 226-2.1 artikuluan formula generiko baten bitartez adierazten du, epaileak asistentzia horren ondarezko eremua eta eremu pertsonala zehazteko obligazioa duela, zaindu beharreko interesen zehaztapenarekin batera. Beraz, laguntza eskatu duen pertsona babesteko beharrezkoa dena bakarrik ezarriko da, bere zailtasunak errazteko eta bere buruarentzat eta ondarearentzat arriskuak ekiditeko. Ondorioz, erresoluzioak zehatzak izan behar dira, babesa behar duten eremuak determinatuz eta pertsonaren borondatea ahal den gehien errespetatuz.⁶⁵ Italiako eremuan ez bezala, ikusi daiteke zuzenbide katalanean ez dela erresoluzioak izan beharreko puntu edo neurri guztiak zehazten baizik eta orokorrean burutzen dela, segurtasun falta eragin dezakeelarik, epailea ez baitago eduki zehatz bati lotua eta beraz erresoluzio bakoitza oso desberdina izan daiteke, bat guztiz zehaztua eta beste bat

⁶³ FERRER, Antonio Manuel, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

⁶⁴ MARTÍNEZ GARCÍA, M.A., “Instituciones de protección: La asistencia. El documento de voluntades anticipadas”, Reyes BARRADA ORELLANA, Martín GARRIDO MELERO, eta Sergio NASARRE AZNAR (Koordinatzailea), *El nuevo Derecho de la persona y de la familia Libro segundo del Código Civil de Cataluña*, Bosch, Barcelona, 2011, 147.orr

⁶⁵ RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco, “Comentario al artículo 226-2 CCCat”, Encarnación ROCA TRÍAS (Koordinatzaile Orokorra), *Código Civil de Cataluña. Comentarios. Libro II. Persona y Familia*, Editorial jurídica sepín, Barcelona, 2011, 421.orr

orokorregia. Ondorioz, pertsona horren interesen babesa kasuz kasu nabarmenki desberdina suertatu daiteke.

226-7 artikulua dio asistentzia Erregistro Zibilean inskribatzen ez den bitartean hirugarrenei aurkagarria ez dela, eta beraz ondorioztatu daiteke inskribatzea ez dela egintza eratzailerik, baizik eta publizitatea emateko dela. Hala ere, asistentzia ez dago jasoa Kode Zibilean eta Erregistro Zibilaren Legean eta beraz azken honetako 89.artikuluaren analogia aplikatuz, tutelari buruzkoa, inskripzioa, asistentzia eskatu duen pertsonak duen ohiko egoitzako erregistroan burutuko da. Esan beharra dago eremu honetan ere hutsune bat badagoela, izan ere hirugarrenek eskubidea dute asistentziaren jakintzaren gainean egoteko, beren egintzak baliozkoak diren edo ez jakiteko. Ondorioz, Erregistro Zibilaren kargura dagoen epaileak horren berri izan beharko luke eta inskripzioa beharrezkoa izan, erresoluzio horien komunikazioa aurreikusitako beharko litzatekeelarik.⁶⁶

Asistentzia aukeratzeko momentuan legedi katalanak ez du hura aukeratzeko irizpiderik ezartzen, baizik eta fokua jarri du babestu behar den pertsonaren borondatearekiko errespetuan autoritate judizialaren aldetik. Laguntza beharrean dagoen pertsonak aukera du zuzenean bere asistentzia izango den pertsona aukeratzeko, epaileak erabaki hori errespetatu beharko duelarik, salbu kargurako egokia ez denean, eta hori tutorearen egokitasuna zehazteko dauden arauak aplikatuz erabakiko da. Beraz, ezegokia izango litzateke adibidez, etsaitasuna baldin badago, pena askatasun gabetzailerik bat betetzen ari bada, interes kontrajarriak badaude etab. Beraz, honen aurrean planteatzen da ea epaileak prozedura ukatu behar duen edo beste pertsona bat izendatu, oraindik gai baita. Egokiena beste pertsona bat izendatzea dela irizten da prozesua gelditzea baino, jada pertsonak prozedura eskatuz argi utzi baitu laguntza behar duela.⁶⁷

Borondatea gailentzeak beste arazo bat sortzen du, askotan pertsonak ez baitute inor aukeratzen asistente bezala horrek sor dezakeen estres edo gatazkengatik. Ondorioz,

⁶⁶ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1634.orr.

⁶⁷ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1636.orr.

epailearen diskrezionalitatea nabarmenki igotzen da norbait aukeratzeko orduan, legediak ez baitio borondatea baino beste irizpiderik ematen.⁶⁸

Kode Zibil katalanak asistenteari modu singularrean egiten dio erreferentzia eta beraz ondorioztatu daiteke egokiena pertsona bakar bat izendatzea dela. Printzipioz, ez du zehazten fisikoa edo juridikoa izan behar duenik, baina tutelaren arauari erremisioa eginik ulertu daiteke irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoak asistente izan daitezkeela, hauek pertsona fisiko bat izendatuz. Burutu beharreko egintzen arabera bat edo beste aukeratu da, betiere ikusiz ez dela inongo interes gatazkarik suertatzen.⁶⁹

Asistentea izendatzean, beharrezkoa da hark karguaren posesio hartzea eta nahiz eta legedian ez jaso, ondarearen inbentarioa burutzea beharrezko dela ulertzen da. Era berean, kargua ukatu dezake arrazoi batzuk planteatuz, adibidez gaixotasuna, pertsona lagunduarekin harreman nahikoa ez izatea etab. Behin onartua erregimen juridiko bati lotua gelditzen da, eta beraz zaugarri den pertsona horren interesean jarduteko obligazioa du bere pertsonalitatearekin bat eginez. Lagunduaren burua eta bere ondarea zaindu eta administratu beharko ditu eta bere eskubideak egikaritu. Pertsonala denez, ezingo du bere funtzioa delegatu.⁷⁰

Kode Zibil katalanak asistentziaren aldaketa eta amaiera erregulatzen du. Izendapena motibatu zuten inguruabarrak aldatzen badira, babes neurria ere aldatu beharko da. Asistentzia bere funtzioen eremuan aldatu daiteke horiek zabalduz edo mugatuz, betiere inguruabarrak kontuan hartuta beharrezkoa baldin bada, pertsonaren egoera aldatzen joan baitaiteke denboran zehar. 226-4.1 artikulua dio aldaketa asistituak eskatu dezakeela, baina ez da horretara mugatzen baizik eta orokorrean adierazten du beste edozeinek ere eskatu dezakeela. Logikoki, hain zabala izatea ez da egokia eta beraz ulertzen da asistituaren familiari edo lagunei egiten diela erreferentzia. Asistentek

⁶⁸ RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco, “Comentario al artículo 226-2 CCCat”, Encarnación ROCA TRÍAS (Koordinatzaile Orokorra), *Código Civil de Cataluña. Comentarios. Libro II. Persona y Familia*, Editorial jurídica sepín, Barcelona, 2011,417.orr.

⁶⁹ MARTÍNEZ GARCÍA, M. A., “Instituciones de protección: La asistencia. El documento de voluntades anticipadas”, Reyes BARRADA ORELLANA, Martín GARRIDO MELERO, eta Sergio NASARRE AZNAR (Koordinatzailea), *El nuevo Derecho de la persona y de la familia Libro segundo del Código Civil de Cataluña*, Bosch, Barcelona, 2011, 148.orr

⁷⁰ DE BARRÓN ARNICHES, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66, 2013, 1641.orr.

inguruabarren aldaketaz bakarrik eman behar du berri eta beraz kasu horretan aldaketa emango balitz epaileak ofizioz burutuko luke hori jakitean. Erresoluzio judizial bitartez ezarriko dira neurri berriak.

Asistentzia ezabatzeko kausa batzuk jasotzen dira 226-5 artikuluan: asistituaren heriotza edo haren deklarazioa, eratzea justifikatu zuten inguruabarren desagerpena eta asistituaren ezgaitzea. 226-5.2ak dio autoritate judizialak asistentziaren desagerpena eragiten duen egitatea deklaratu beharko duela eta asistentearen izendapena indargabetu, asistentzia judizialki sortzen baita eta beraz baita desagertu ere. Desagerpenaren eskakizuna, asistituak berak, asistenteak eta familiako kideek burutu dezakete. Kontuan hartuz asistenteak epaileari aldaketa guztien berri emateko duen betebeharra, horietan oinarrituz epaileak ofizioz haren desagerpena erabaki dezake aipatutako arrazoiren batean oinarrituta.⁷¹

Sortu daitekeen arazoetako bat, epaileak asistenteak burutu behar dituen egintzak zeintzuk diren ez zehaztea da. Ez badago argi zein egintza burutu behar dituen asistituak eta zein asistenteak bi egintzen arteko bateratzea gerta daiteke eta hirugarrenentzat arazo bat suposatu, baliozkoa zein den jakin behar baitute. Kasu horretan xedatze baliozko bikoitzaren arauak aplikatuko dira eta hirugarrenak erantzukizun akzio batez baliatu ahal izango da kalte ordainak eskatzeko asistituari. Era berean, asistitua akzio berdinez baliatu daiteke asistentearen aurka, azken honek ez badio egoki informatu burutu dituen egintzez.⁷²

Era berean, asistituak asistentearen interbentziorik gabe burututako egintzak, hura beharrezkoa denean, nulu deklaratu daitezke 226-3 artikulua araberara. Asistituak, eta tutoreak asistitua ezgaitzen den kasuetan, eta oinordekoek ere asistituaren heriotza kasuan, eskatu dezakete hura nulu deklaratzeko, 4 urteko epea dagoelarik. Asistenteak

⁷¹ FERRER, Antonio Manuel, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21..

⁷² RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco, “Comentario al artículo 226-2 CCCat”, Encarnación ROCA TRÍAS (Koordinatzaile Orokorra), *Código Civil de Cataluña. Comentarios. Libro II. Persona y Familia*, Editorial jurídica sepín, Barcelona, 2011,425.orrr

egindako egintzak inpugnatzearen inguruan kodeak ez du ezer jasotzen, ezta asistentek epailearen baimenarekin eman behar dituen egintzen inguruan.⁷³

5.2 Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatzeko aurreproiektua

Nafarroan, beren Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatzeko aurreproiektua burutu da. Bertan adierazten da, erreforma honek helburu duela Nafarroako gizartearen behar berriei egokitzea eta bertako kolektibo eta pertsonen beharrei erantzutea. Gaitasun juridikoaren material, botere prebentiboa barneratzen du berrikuntza bezala. Honetaz gain adierazten du, etorkizunean legislazio berezi bat burutu ahal izango dela gaitasun juridikoa modu osoan erregulatuko duelarik, bertan jasoz gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonentzako laguntza neurriak. Ondorioz, esan dezakegu atea irekia uzten diola laguntza edo asistente figura bat jasotzeari.

Botere prebentiboei dagokionez dio, pertsona askea dela beste pertsona bat bere ordezkari bezala izendatzeko, eskritura publiko bitartez, etorkizun batean ezgai denerako.

5.3 Espainiar zuzenbide komuna

Espainiar zuzenbide komunari dagokionez, mekanismo desberdinak jasotzen dira gaitasun juridikoa osatzeko, baina nagusiena eta indarrean denbora gehien daramana ezgaitze prozesua da.

Pertsona bat ezgaitzea bere obratzeko gaitasunaren mugapen bat egitea da, zeinak egoera zibil berri bat osatuko duen, helburu bezala izanik ezgaitua eta bere ondarea babestea. Pertsona ezgaitu deklaratu ahal izateko Kode Zibileko 200.artikuluaren arabera, pertsonak bere burua gobernatzeko edo zuzentzeko ezintasuna izan behar du, gaixotasun edo urritasun fisiko edo psikiko iraunkor baten eraginez. Ez da nahikoa gaixo egotea, baizik eta hark bere kabuz jardun ahal izatea ekidin behar du. Ezgaitasuna epai batean deklaratuko da, prozedura judizial baten bitartez, eta bertan zehaztuko da haren eremua eta bere mugak. Kasuaren arabera Tutoretzaren edo Kuradoretzaren figura

⁷³ FERRER, Antonio Manuel, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

ezarriko da. Pertsona konkretu horren inguruabarretan aldaketarik suertatuko balitz, erregimena ere aldatu ahal izango da egoera berrira egokituz.

Prozesu hau hasteko, kaltetua bera ez dago legitimatua, baizik eta ezkontidea, aurrekoak, ondorengoak edo anai arrebak daude legitimatuta. Era berean, Ministeritza Fiskalak prozesua hasi dezake eta egoeraren berri edozeinek eman diezaioke.⁷⁴

Ezgai deklaratzek, norberak bere eskubideak eta obligazioak egikaritzeko duen ezintasuna suposatzen du. Gogoratu behar da, Espainian gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna desberdintzen direla, nazioarteko zuzenbidearen puntuan azaldu dena. Jarduteko gaitasunak zehaztuko du pertsona batek bere eskubide eta obligazioak egikaritu ditzakeen edo ez. Hau 18 urte betetzean lortzen da, presumitzen baita adin horrekin jarduteko gaitasuna badagoela.

Beraz, pertsona ez bada gai bere burua gobernatzeko, presumitzen den jarduteko gaitasunaren eta errealitatean ematen denaren arteko hausketa ematen da. Jarduteko gaitasunak ulermena eta borondatea badagoela suposatzen badu, haiek kaltetuak dituen pertsonaren adostasuna ez litzateke baliozkoa izango, ez baitago argi hura ulertu eta burutu nahi duen. Ondorioz, ezgaitzea ez ohiko neurri bezala aplikatu behar da, pertsonaren askatasunari eragiten baitio eta jarduteko gaitasuna guztiz kendu edo hura mugatu.

Esan bezala, Tutoretza edo Kuradoretza figura ezarri daiteke ezgai deklaratzearen ondorioz. Tutoretza ulermenean eta borondatea adieraztean arazoak ematen duten desgaitasunen eraginez planteatu daiteke. Tutoreak dagozkion funtzioak bete behar ditu, beti pertsonaren onuran eta epaileak kontrolatua izango da. Tutoreak ezgaitua guztiz ordezkatzeko du, eta beraz bere adostasun ematea ere. Kuradoretzan aldiz, kuradoreak ezgaitua asistitu egin behar du baina ez bere adostasun ematea ordezkatu, eta era berean bere ondarea babestu behar du.⁷⁵

Figura honen aurrean, aipatu behar da ikuspegi desberdinak planteatzen direla. Alde batetik, doktrinaren alderdi batek irizten du ezgaitzea ez dela figura egokia, ez baititu

⁷⁴ DE COUTO GALVEZ, Rosa, MIRAT HERNÁNDEZ, Pilar, ARMENDÁRIZ LEÓN, Carmen, La protección jurídica de los ancianos, Colex, 2007, 33-37.orr

⁷⁵ DE COUTO GALVEZ, Rosa, MIRAT HERNÁNDEZ, Pilar, ARMENDÁRIZ LEÓN, Carmen, La protección jurídica de los ancianos, Colex, 2007, 53-54.orr

Konbentzioak eskatzen dituen betekizunak errespetatzen eta kanpo uzten baititu gizartearen sektore baten beharrak, haiei ez egokituz. Hala nola, gure kasuan, hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonak zenbait egintza juridiko egiteko laguntza behar badute, ematen den erantzuna ezgaitzea da, non ordezkatuak izango diren nahiz eta oraindik gaitasuna mantendu beste zenbait egintza burutu ahal izateko. Gainera, printzipioz, gaixotasun bat frogatu beharko lukete prozesua hasteko eta ezingo lukete beraiek propioki hasi. Beste alde batetik, adierazten da sistema hau ez dela guztiz ezegokia, badituela zenbait hutsune eta hobetu beharko litzatekeela, baina egokia suertatu daitekeela Konbentzioak eskatzen duena betetzeko.

Figura hau ezegokitzat jotzen dutenen artean, Benigno Varela Aufrán aurkitzen da Auzitegi Goreneko IV.salako Magistratua. Bere iritziz, sistema honetatik, zeina erabakiak hartzeko gaitasuna ordezkatzean oinarritzen den, desgaitasuna duen pertsonak erabakiak hartzeko duen autonomia errespetatzen duen sistema baterako aldaketa burutu behar da. Izan ere, kontsideratzen du desgaitasunen bat duten pertsonen artean ezgaitze oso eta erradikal bat behar ez duten asko daudela, eta horren ordezkariak daukaten gaitasunaren osagarri bat behar dutela, adinekoen kasua azken honen barruan egongo litzatekeelarik ez baitute behar ordezkatzeko baizik eta laguntza ematea.

Bere iritziz zuzenbide zibilaren erregulazio hau ez da egokitu berdintasunerako eta integrazioarako korrante berrietara, Konbentzioak bultzatzen dituenak, nahiz eta egia den adibidez ezgaitze judizialak malgutze eta graduazio bat jasan duen garai batean zuen zurruntasunarekiko. Izan ere zuzenbideak, ezgaitze judizialeko prozesu bakar bat aurreikusten du ezgaitasun mental desberdinen aurrean, non pertsonak ez diren gai zenbait egintza burutzeko baina bai beste hainbat egiteko. Benignok kontsideratzen du marko juridikoan adostasuna ematea bereziki garrantzizkoa dela eta beraz kontu handia izan behar dela pertsona baten gaitasun intelektuala eta bolitiboa zehazterako orduan,. Gainera dio, pertsona desgaituen gaitasun juridikoaren gaia tratatzean ez dela bakarrik kontuan hartu behar alderdi juridikoa, baizik eta soziala ere, pertsona integartzeko eta beren autonomia garatzea ahalbidetzeko. Ondorioz, beraien integrazioa lortu behar da gaitasun juridikoa ez abstraktuan erregulatuz, baizik eta egintza bakoitzerako nahikoa izatea bermatuz, ez eskema batera sinplifikatuz non pertsonak perfektuak diren, guztiz gai, edo inperfektuak, guztiz ezgai.

Horregatik, irizten du zuzenbide pribatua desgaitasunaren kontzepzio berrira egokitu behar dela, ezgaitasunetik desberdinduz, eta faltan botatzen du beste instrumentu batzuen erregulazioa legegilearen aldetik, non obratzeko gaitasun ez osoa betetzera edo asistitzera orientatuak dauden, jarduteko gaitasun eza ordeztara baino.⁷⁶ Gainera, bere iritziz ezgaitze epaian ezgaituaren bizitzako egintza frogatuak agertu beharko lirateke eta pertsona horren mugapenaren arrazoiketa, gaitasuna osatzeko mekanismoak aurreikustearekin batera.⁷⁷

Beste alde batetik, badago beste sektore bat zeinak kontsideratzen duen aurreikusitako ezgaitze prozesua ez dela hain desegokia, nahiz eta aldaketaren bat beharko lukeen. Esaterako, Aurora Elosegui Magistratuak irizten dio ezgaitze prozesuak ahalbidetu egiten duela ezgaitu behar den pertsonaren beharretara egokitzea. Izan ere bere hitzetan, legearen bitartez ezgaitze horren eremua graduatu daiteke pertsonaren arabera, epaileak zehazten duelarik eremua, askotan pertsonak egiten ez dakitena.

Bere ustez Kode Zibileko 158.artikulutik bideratu daiteke graduagarritasun hori. 158.artikuluaren epaileak ofizioz edota seme-alabaren, edozein ahaideren eta Ministeritza Fiskalaren eskaeraz seme-alabarekiko hartu ditzakeen neurriak jasotzen ditu, orokorrean egoki jotzen dituenak adin txikikoa arriskutik aldentzeko edo bere familia eremutik datozen kalteak ekiditeko. Gainera, artikulua dio neurri guzti hauek edozein prozesu zibil eta penalean hartu ahal izango direla, baita borondatezko jurisdikzioaren bitartez.

Auroraren aburuz, artikulua honen analogia aplikatuz posible da ezgaitua izan behar duen pertsonaren egoera egokitzea eta graduatzea, beti bere interesen alde jokatzuz eta beraz bere familia eremutik etor daitezkeen kalteez babestuz. Hortaz, bere ustez artikulua honen luzapen bat egin beharko litzateke desgaitasuna duten pertsonen egoera eta interesak hobeto babesteko. Bere ustez, sistemaren helburua desgaitasunen bat duten pertsonen babesa eta laguntza ematea da eta askotan laguntza behar horretaz eremu soziala konturatzen da, haiek hasiz prozedura.

⁷⁶ VARELA AUTRÁN, Benigno, “La protección jurídica de las personas con capacidad intelectual límite: Curatela, Guarda de Hecho y otras figuras”, Manuel, ÁNGEL MARTÍNEZ GARCÍA (Zuzendaria), *La defensa jurídica de las personas vulnerables*, Civitas, Pamplona, 2008,83-88.orr.

⁷⁷ VARELA AUTRÁN, Benigno, “La protección jurídica de las personas con capacidad intelectual límite: Curatela, Guarda de Hecho y otras figuras”, Manuel, ÁNGEL MARTÍNEZ GARCÍA (Zuzendaria), *La defensa jurídica de las personas vulnerables*, Civitas, Pamplona, 2008,103.orr.

Auroraren iritziz, helburu horiek lortzeko eta prozesu hori burutzeko dagoen sistema egokia da, hura ahalbidetzen baitu. Bere hitzetan, ezgaiaren neurriko trajea egiten saiatzen ari dira, oraindik dituen gaitasunak baloratuz, gradu baxu batean dituenak bultzatuz eta kompetentea ez denetan ordezkatzuz. Hala ere, errekonozitzen du epaile guztiek ez dituztela epaiak beharrezko xehetasunarekin idazten eta epaitegi espezializatuak beharko liratekeela. Honetaz gain, ez du tutoretza hain mugatua ikusten eta bere iritziz ez dago zertan pentsatu behar tutoreak ez duela desgaituaren borondatea errespetatuko, erabaki garrantzitsuak hartzeko epailearen baimena behar baitu. Ez errespetatzearen kasuan, hura konpontzeko epaileak leudeke, 158.artikuluaren bitartez neurriak hartu ditzazketelarik kaltetua babesteko.⁷⁸

Era berean, aipatu beharra dago kuradoretzaren figura ez dela tutoretzarena bezain murriztailea. Izan ere, kuradoretzak ez du suposatzen pertsonaren jarduteko gaitasunaren ordezkatzeari burutzea, baizik eta kaltetuari asistentzia eta laguntza ematea ondorio juridikoak dituzten egintza zehatzak burutzeko, hauek ezin dituelako egoki ulertu.⁷⁹

Azken ikuspegi hau aztertuta, defendatu ahal da Konbentzioak eskatzen dituen proportzionaltasun eta tenporalitate printzipioak betetzen direla. Alde batetik proportzionaltasuna beteko litzateke, Auroraren iritziz babes neurriak bakoitzaren egoerara graduatu ahal direlako, bai 158.artikuluaren bitartez, bai epaian ezarritakoaren bitartez, eta gainera kuradoretzak hori ahalbidetzen du, bakoitzak behar duenerako laguntza ezartzea. Tenporalitate printzipioari dagokionez, esan daiteke betetzen dela, inguruabarrak aldatzen badira epaileak neurriak egokitu baititzake eta gainera haren baimena behar da zenbait erabaki hartzeko, nolabaiteko kontrol judiziala egongo litzatekeelarik, baina hala ere ez dira periodikoak Konbentzioak eskatzen duen bezala.

Ezgaitze prozesuaz gain gure ordenamenduko aipatu beharreko beste instrumentuak autotutela eta prebentzio botereak dira. Autotutela Kode Zibileko 223.artikuluan

⁷⁸ ELOSEGUI, Aurora, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiezín bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

⁷⁹ VARELA AUTRÁN, Benigno, “La protección jurídica de las personas con capacidad intelectual límite: Curatela, Guarda de Hecho y otras figuras”, Manuel, ÁNGEL MARTÍNEZ GARCÍA (Zuzendaria), *La defensa jurídica de las personas vulnerables*, Civitas, Pamplona, 2008, 99-100.orr.

aurreikusten da eta honen bitartez etorkizunerako, ezgaitasuna emateko kasuan, tutore bat edo gehiago izendatzen dira, tutore izatetik pertsonak baztertu eta ondarearen administrazioaren inguruko aginduak ematen dira. Eskritura publiko bitartez egingo da notario aurrean. Prebentzioko boterea Kode Zibileko 1732.artikuluari jasotzen da eta honen bitartez mandatuaren desagertzea ekiditen da mandatu emailearen ezgaitzea emateko kasuan. Botere emate hau posible izateko, botere emaileak hura osatu nahi izateko eta suposatzen duena ulertzeko gaitasun nahikoa izan behar du mandatua osatzeko unean. Egokitzat jotzen da adinekoa izatearen ondorioz ezgaitze prozesuak pena merezi ez duenean adibidez. Hau ere eskritura publiko bitartez burutzen da eta Notarioak hura Erregistro Zibilarari komunikatzeko betebeharra du, abusua ekiditearekin batera.⁸⁰

Figura hauen inguruan esaten da, Konbentzioak eskatzen duen desgaituaren borondate errespetatzea betetzen dela, pertsonak erabakitzen baitu zein izendatu eta aginduak ematen baititu bere ondarearen inguruan. Hala ere, ez dituzte errespetatzen Konbentzioko tenporalitate eta proportzionaltasun printzipioak. Neurri hauek ez daude kontrol judizial periodiko baten menpe, beraz ez dute tenporalitate printzipioa betetzen. Proportzionaltasunari dagokionez, honek suposatzen du neurriak pertsonaren gaitasun galtze mailara egokituak egon behar direla eta hau bi neurri hauetan desagertzen da. Izan ere, tutore batek pertsona ordezkatzeko du eta mandatu hartzaileak ez du pertsona asistitzen baizik eta hura ordezkatzeko du ere, ez dagoelarik graduaziorik, pertsona ordezkatzeko da berdindu duen maila.⁸¹

Azkenik, honekin lotuta aipatu beharra dago Notarioak jokatzeko duen paper garrantzitsua desgaitasuna duen pertsonaren babesarekiko. Notarioak, pertsonak adostasuna libreki eman duenaren eta horretarako gaitasun legala duenaren fede eman behar du, askotan gaitasun hori mugatua duten pertsonekin tratatzen dutelarik. Notarioak egiten duen gaitasunaren balorazio horrek izugarritzko garrantzia dauka, *iuris*

⁸⁰ SEDA HERMOSÍN, Manuel Antonio, “El notario como actor fundamental en la protección de las personas vulnerables” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011 449-450 orr.

⁸¹ PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011 200-201.orr.

tantum presuntzio bat suposatzen baitu *erga omnes* binkulantea dena. Notarioak erabaki behar du erantzukizuna bere gain edukiz, aurrean duen pertsonak gaitasun intelektual nahikoa duela egintza ulertzeko eta adostasuna emateko. Konbentzioak markatzen duen ildo jarraituz Notarioak gaitasun hori badagoen edo ez adierazi behar du baina integrazio eta laguntza sistema baten barruan eta ez borondatea ordezkatzeko duen batean.

Izan ere Notarioak posizio pribilegiatua du hura erabakitzean, errealitate sozial eta ekonomikoa ezagutzen baitu, dela orokorra dela desgaitu zehatzarena, desgaituaren inguruabar pertsonal eta familiarak ezagutzen ditu eta gainera abusua prebenitzeko jakintza eta mekanismoak ditu. Hala, kasu zehatz bakoitzean erabaki bat hartu dezake beti desgaituaren pertsonalitate garapena bultzatuz eta egokiak diren babes neurriak proposatuz.⁸²

5.3 Desgaitasun materialen legislazio zibila eta prozesala erreformatzen duen Lege Aurreproiektua

Nazioarteko Zuzenbidearen puntuan aipatu den bezala, Konbentzioak aurrerapauso handi bat suposatu du pertsona desgaituen eskubideei dagokionez. Esan bezala helburu bezala dauka desgaituen eskubide eta oinarriko askatasun guztien bultzatzea, berdintasun baldintzetan, eta pertsona horien integrazio soziala, autonomia indibiduala eta parte hartzea sustatzea.

Aurreko puntuan ikusi den bezala, Espainiar sistema zibilak ez ditu egoki betetzen gaitasun juridikoaren inguruko betekizunak, sistema gaitasun ordeztailen izaten jarraitzen baitu, ez delarik egokitzen pertsona bakoitzaren desgaitasun mailara eta non desgaituen borondatea eta parte hartze zuzena ez den guztiz bermatzen. Ondorioz, Espainian Desgaitasun materialen legislazio zibila eta prozesala erreformatzen duen Lege Aurreproiektua burutu da, ordenamendua Konbentzioaren betekizunetara egokitzeko helburuarekin, pertsona desgaituen gaitasun juridikoaren exekuzioaren materialen. Puntu honetan, Aurreproiektu honek suposatzen dituen aldaketa nagusiak aztertuko dira eta

⁸² SEDA HERMOSÍN, Manuel Antonio, “El notario como actor fundamental en la protección de las personas vulnerables” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011, 458 -459.orr.

ikusi, ea Konbentzioak eskatzen duena betetzen den eta ea hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonen beharrei erantzuten dien.

Hasteko, titulu aitzindarian Aurreproiektu honen helburua azaltzen da, gure ordenamenduaren egokitzea burutzea Konbentzioarekiko. Erreforma honekin, sistema paternalista batetik, zeina pertsona desgaituaren babesean, asistentzian eta zaintzan oinarritzen den, sistema sozial baterako aldaketa burutu nahi da, zeinean pertsona desgaituak eskubide osoko subjektuak diren eta beraz bere erabaki propioak hartzeko eskubidearen titular, betiere beren segurtasun juridikoa urratu gabe eta behar den laguntza eta babesa emanaz.

Aurreproiektuak 5 artikulua ditu eta lehenengoan Kode Zibilaren erreforma jasotzen da, nagusiena izango dena. Kode Zibilean hainbat artikulua aldatu dira baina garrantzitsuenak Tutoretza, Kuradoretza eta gainerako babes instituzioen eta ezgaitzearen tituluen aldaketa da.

Lehenik, IX.Titulua Ezgaitzeari buruzkoa izatetik Adin txikikoen Tutoretza eta zaintza izatera igarotzen da. Bertan Tutoretzaren instituzioa aurreikusten da babesgabetasun egoeran dauden emantzipatu gabeko adin txikikoentzat, eta guraso boterepean aurkitzen ez diren adin txikikoentzat. Ondorioz, Tutoretzaren instituzioa ez da aurreikusten ezgaituak izan diren pertsonentzako, bakarrik hura behar duten adin txikikoentzat izatera igarotzen da. Tutoretzaz gain adin txikikoaren defendatzaile judiziala eta legezko zaindaria arautzen dira, hemen ere bakarrik adin txikikoen babesari erreparatuz. X.Titulua ere aldatu egiten da eta Tutoretza, Kuradoretza eta adin txiki eta ezgaituen zaintza erregulatzetik, Adin Nagusitasuna eta Emantzipazioa arautzera igarotzen da, hauek nola burutu arautuz.

XI.Titulua ere aldatzen da eta Adin Nagusitasuna eta Emantzipazioa arautzetik Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza neurriak erregulatzera igarotzen da, gure gaiari dagokionez erreformarik garrantzitsuen eta sakonena. Titulu honetako lehen artikulua bere helburua adierazten du, zeina den, beharrezkoak suertatzen diren laguntza neurrien erregulazioa, beraien gaitasun juridikoa egikaritzeko behar dituzten adin nagusi eta emantzipatuek beren pertsonalitatea osoki garatu dezaten eta juridikoki berdintasun baldintzetan moldatu daitezen. Era berean, laguntza neurriak pertsonaren duintasunarekiko errespetuan eta beraien oinarritzko eskubideekiko tutelan inspiratuak egon behar dira. Laguntza neurri horiek legalak edo judizialak baldin badira,

pertsonaren borondate adierazpenik ez badago bakarrik ezarri ahal izango dira edota hura nahikoa suertatzen ez denean. Beste herrialdeetako figuren antzera, Titulu berri honek adierazten du laguntza neurriak beharrezkotasun eta proportzionalitate printzipioetara egokitu beharko direla, hau da, bakarrik beharrezkoak suertatzen direnean ezarri behar direla eta bakarrik, pertsonak bere kabuz burutu ezin dituen eremuetan.

Ondoren, laguntza eman behar duten pertsonari egiten zaie erreferentzia, esanez, neurri horiek behar dituen pertsonaren borondate, desio eta lehentasunen arabera jardun beharko dutela. Era berean, pertsona desgaituak bere erabaki hartze prozesu propioa garatu dezan saiatuko dira, informazioa emanez, haren ulermenean eta arrazonamenduan lagunduz eta erraztasunak jarritz bere lehentasunak adieraztean. Azkenik, pertsona desgaituak etorkizun batean bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza gutxiago behar izatea bultzatuko dute.

Guzti hau aurrera eraman ahal izateko, hiru laguntza instituzio aurreikusten dira pertsona desgaituentzat, legezko zaindaria, kuradoretza eta defendatzaile judiciala. Ondorioz ikusi dezakegu hasteko, Kode Zibilak Konbentzioko helburuak jasoko lituzkeela, pertsona desgaituei beharrezkoa duten laguntza ematea beraien gaitasun juridikoa egikaritzeko, baina beraien duintasuna errespetatuz eta batez ere beraien borondatea kontuan hartuz.

Behin instituzioak aipatuta, autotutela aurreikusten da. Edozein pertsona adin nagusi edo emantzipatuak, aurreikusiz etorkizunean zailtasunak izan ditzakeela bere gaitasun juridikoa egikaritzekoan besteekiko berdintasunean, eskritura publiko bitartez laguntza neurriak aurreikusi ahal izango ditu bere pertsonarekiko edo bere ondasunekiko, egikaritze erregimena eta laguntza emango duen pertsonaren ahalmenak zehaztuz. Era berean, prebentzio boterea eman ahal izango du edo kuradore baten izendapena gomendatu. Borondatezko neurri hauen faltan edo nahikotasun gabezia ematean bakarrik, ezarri ahal izango dira hauen ordezkioak edo osagarriak direnak autoritate judicialaren eskutik.

Legezko zaindariari dagokionez, honek laguntza ematen du neurri boluntariorik edo judicialik ez dagoenean eta beraz, pertsona bat legezko zaindari bezala egoki ari bada denbora batez, bere funtzioa egikaritzen jarraituko du, salbu, aipatutako neurriak aplikatzen ari badira. Legezko zaindaria bete beharreko egintzak ordezkari

egiaztatzea eskatzen bada, baimen judiziala eskatu beharko da, borondatezko jurisdikzioko espediente baten bitartez burutuko dena. Haren beharrezkotasuna aztertuko da eta dauden inguruabarretarako egokia bada, eman egingo da.

Legezko zaindariak hartutako erabakiei ezingo zaie aurka egin hauek erabilgarriak badira laguntza behar duen pertsonarentzat. Hala ere, autoritate judizialak borondatezko jurisdikzioko espediente baten bitartez, bai ofizioz bai edozein interesatuk eskatua, bere egikaritzaz informatzea eskatu dezake eta dagozkien babes neurriak ezarri. Legezko zaindaritza amaituko da, laguntza ematen ari zaion pertsonak beste modu batera antolatzea eskatzen duenean, hura motibatu zuten kausak desagertzean, zaindariak bere egikaritzari uzten dionean eta azkenik Ministeritza Fiskalak edo laguntza emateko interesa duenak eskatzen dutenean autoritate judizialak egoki irizten bada.

Kuradoretzari dagokionez, autoritate judizialak laguntza neurriak hartuko ditu laguntza emateko prozeduraren barruan, eta hauek behar dituen pertsonaren beharrekiko proportzionalak izango dira, autonomiarik handiena errespetatuz gaitasun juridikoaren egikaritzan eta beti kasu eginez bere borondate, desio eta lehentasunei. Honetaz gain, borondatezko jurisdikzioko espediente baten bitartez hartutako neurrien errebisio periodiko bat burutuko da hiru urteko gehienezko epearekin. Autoritate judizialak kuradoretza bakarrik ezarriko du, beste laguntza neurri hobeagorik ez dagoenean pertsona desgaituarentzat. Argi ikusi daiteke, kuradoretzak proportzionalitatea, tenporalitatea eta pertsona desgaituaren borondatea errespetatzen dituela lehen momentutik, kasu honetan kontrola bai periodikoa izanik.

Autoritateak, pertsona desgaituak kuradorearen parte hartzearekin burutu beharreko egintzak zeintzuk diren zehaztuko ditu, bere laguntza beharren arabera. Soilik, ez ohiko kasuetan, non beharrezkoa ikusten den kasuaren inguruabarretatik, zehaztuko dira ordezkapen osoa behar duten egintzak. Bi egintza motak oso modu zehatzean adierazi beharko dira, eta ezingo da inoiz eman eskubideen debekua. Gainera, edozein momentutan exijitu ahal izango dio autoritateak kuradoreari laguntzen ari den pertsonaren eta bere ondarearen informazioa ematea. Hemen ikusi daiteke, pertsonaren ordezkapena guztiz subsidiarioa dela eta bakarrik beharrezkoa denean ezarriko dela, oso modu zehatzean gainera, sistemarekiko aldaketa sakona suposatuz.

Aipatu bezala, autokuratela ere erregulatu egiten da, non edozein pertsona adin nagusi edo emantzipatuak, aurreikusiz etorkizunean arazoak izan ditzakeela bere gaitasun

juridikoa egikaritzean, eskritura publiko bitartez kuradore zein izango den edo zein ez erabaki dezake.

Izendapen proposamena eta gainerako borondatezko neurriak binkulanteak izango dira autoritate judizialarentzat baina era berean osoki edo partzialki ez aplikatzea erabaki dezake ofizioz, edo Ministeritza Fiskala edo kuradoretza funtzioa betetzera deituak daudenen eskaeraz, ezagutzen ez diren inguruabar larriak ematearen kasuan.

Pertsona bat kuradore izendatzeko, honek adin nagusia izan beharko du, eta autoritate judizialaren aburuz funtzioa egoki betetzeko beharrezko ahalmena edo gaitasuna izan beharko du. Era berean, kuradore izendatzea posible egiten ez duten kausen zerrenda bat jasotzen da, horien artean egonik, laguntza behar duenak baztertu izana, kuradoretza egoki ez egikaritzea suposatzen duen delitu bat bete izana, interes gatazkaren bat edukitzea etab.

Esan bezala printzipioz, laguntza behar duenak proposatutako pertsona izendatuko da kuradore, betiere ez badira ematen aurretik aipatutako inguruabar larriak. Proposamen horren faltan, kuradore izendatuko da lehentasun ordenean, lehenik ezkontidea edo antzeko egoeran aurkitzen dena, ondoren seme-alabak, ondoren anai-arrebak edo ahaideak harekin bizi badira, legezko zaindari bezala ari dena eta azkenik ezkontide edo bikoteak edo gurasoek testamentuan izendatutakoak. Orden hau hala ere, aldatu ahal izango da laguntza behar duen pertsona entzun ondoren.

Kuradore bat baino gehiago izendatu daitezke, bakoitzari funtzio desberdinak esleituz eta funtzionamendua zehaztuz, beti lagunduaren borondatea errespetatuz. Kuradorearen gain, kargua ezin betetzeko inguruabar legalen bat ematen bada edo bere kargua ezegoki burutzen badu, bere funtzioak ez betez edo arazoak egonez bizikidetzan, kargutik kenduko zaio. Hau autoritateak ofizioz edo Ministeritza Fiskalaren bitartez eta lagunduaren bitartez informazioa lortu ondoren erabaki dezake borondatezko jurisdikzioko espediente baten bidez.

Kuradoreak bere izendapenari uko egin diezaioke oso kaltegarria suertatzen bazaio bakarrik, bai hasieran bai denbora badarama karguan. Pertsona juridikoek ukatu dezakete bakarrik medio falta dagoenean.

Kuradoreak kargua onartuko du Justizia Administrazioako Letraduaren aurrean, eta behin bere kargua egikaritzen hastean, lagunduarekin kontaktu pertsonala izatera

behartua dago eta funtzioak diligentziaz betetzera. Laguntza neurrien helburuan aipatu bezala lagunduaren nahiak eta borondatea errespetatu beharko du. Ahalmen ordezaileekin aritzen bada, pertsonaren bizitza, baloreak eta sinesmenak hartu behar ditu kontuan, eta pertsonak horrek ordezkari gabe hartuko lukeen erabakia zein den zehazten saiatu. Era berean, ahalmen ordezailea badu, lagunduaren ondarearen inbentarioa burutu beharko du kargua onartu eta 70 egunetara, Letratu edo Notario aurrean eta garrantzi handiko erabakiak hartzeko baimen judiziala beharko du.

Interes gatazkarik sortzen bada kuradore eta lagunduaren artean, Letraduak defendatzaile judizial bat izendatuko du ordezkari bezala, beti lagundua entzunez. Gatazka denbora luzez mantentzen bada, kuradoretza berantolatu daiteke edo berri bat izendatu. Kuradoretza, lagunduaren heriotzarekin edo hura beharrezkoa ez denean iraungiko da. Kasu horretan kuradoreak bere administrazioaren kontu eman beharko du.

Defendatzaile judizialari dagokionez, bere erregimena oso laburra da. Izendatuko da lehenik, desgaitua den pertsonak laguntza aldizka behar duenean, nahiz eta modu errepikatuan izan, bigarren, laguntza eman behar duenak ezin duenean hura sortzen duen kausa desagertu edo beste bat izendatu arte, hirugarren, laguntzaile eta lagunduaren artean interes gatazka sortzean eta azkenik kuradoreak uko egiten dionean hura erabaki bitarterako. Figura honi aplikagarriak izango zaizkio kuradore ez izateko arrazoiak, ukatzekoak eta kargutik kentzekoak. Era berean, bere gestioaren kontu eman behar du.

Hau izanik aldaketa sakonena Kode Zibilean, gainerakoak honen ondorio zuzena dira. Izan ere, gainerako artikuluetan emandako aldaketak gehienbat terminologikoak dira, non ezgaitze prozedurari egindako aipamenak eta ezgaitu hitza desagertzen diren. Kontratu eremuan aipatzen da pertsonak erabakiak hartu ahal izango dituela bere laguntza neurriaren arabera.

Kode Zibilaren erreforma honek modu argian errespetatzen ditu Konbentzioak ezarritako betekizunak. Pertsona desgaituen borondateari dagokionez, ikusi daiteke alderdi guztiz klabea dela erreforma osoan. Lehenik jada, sartutako laguntza neurri berrien helburuan argi azaldu da funtsezkoa dela laguntzaileak lagunduaren borondatea errespetatzea, eta ez hori bakarrik, baizik eta hura garatzen laguntzea eta gutxiago izatera bideratzera. Beraz pertsonak erabakitzea indartzen da, laguntza eta ordezea ahalik eta gutxien eman daitezen. Ondoren borondatea aurreikusitako hiru figuretan

azaltzen da, hiruak borondatearekiko aritu behar direlarik, baita ordeztea ematen den kasuan ere. Zenbait egintzetan ordezkapena ematen bada Kuradoretzan, kuradoreak lagunduak egingo lukeena burutu beharko du, bere bizitzan izandako nahiak eta joerak aztertuz. Beraz nahiz eta ordezkapena eman, borondateak modu indartsuan presente egoten jarraitzen du.

Era berean, autotulela eta botere prebentiboetan borondateari ere garrantzi handia eman zaio, pertsonak izendapenak erabakitzeaz gain bere erregimena ere antolatu baitezake horretarako askatasuna izanik. Honek ez du esan nahi babes gabe geldituko denik, epaileak erabaki baitezake borondatezko neurri horiek ez betetzea arriskutsuak baldin badira ezarri dituen pertsonarentzat.

Proporzionalitate printzipiori dagokionez, hau ere betetzen da. Jada ez da eskatzen pertsona gaixo egotea eta horren aurrean zuzenean ordezkatu, baizik eta bere egoera pertsonalaren arabera laguntza neurriak ezarriko zaizkio behar dituen egintzetarako bakarrik, ez denerako. Gainera, hiru figurak egoera desberdinetarako aurreikusiak daude pertsona bakoitzaren egoerara egokitu daitezten, eta kuradoretzan ikusi ahal izan dugu, pertsona guztiz ordeztea neurri subsidiario bat dela, bakarrik behar beharrezkoa suertatzen denerako aurreikusia.

Azkenik, tenporalitate printzipioa ere betetzen da, ikusitako instituzio berriak kontrol judizialaren pean aurkitzen baitira. Borondatezko neurriak ezartzean, kontrol judiziala dago egokiak ez badira aldatu daitezkeelarik. Ondoren, neurri judizialak ezartzean, hiru instituzioen egikaritzea kontrolpean dago, edozein momentutan haren berri ematea eskatu dezakeelarik epaileak, eta hura ondo betetzen ari ez bada kargutik kendu. Epaileak hau ofizioz egin dezake, baita eskaeraz ere, baina bere kabuz erabaki dezake kontrola aurrera eramatea. Gainera, ordezkapena suposatzen duten egintzek kontrol zorrotzagoa dute, inbentarioa egin behar delarik, kontu eman etab. Era berean, zenbait egintza garrantzitsu, ondarearen eta pertsonaren ingurukoak, baimen judiziala behar dute aurrera eramanez izateko, kontrola badagoelarik. Aldaketa garrantzitsuena kuradoretzaren kontrol periodikoa da, horrela ez delako egongo epailearen erabakiaren edo eskaera baten pean, baizik eta epaileak epe konkretuak igarota funtzioak egoki betetzen ari direla ikuskatu beharko du, eskubideak errespetatu daitezten.

Aurreproiektuak, Kode Zibilaz gain, Hipoteka Legea erreformatzen du eta aldaketarik nabarmenena laguntza neurriak ezartzen dituen epaiaren Jabetza Erregistroan

inskribatzea erregulatuena da. Ondoren, Enjuiziamendu Zibileko Legea eta Erregistro Zibilekoa ere erreformatzen ditu. Bertan, prozedura berri bat aurreikusten da, Laguntza Neurrien ezarpenaren prozedura eta beraz hura ezagutzeko kompetentziaduna, legitimatuak, frogak etab erregulatuena dira eta ezgaitzeari egindako erreferentziak aldatu egiten dira Kode Zibilaren modura. Legitimazioan aipatu beharra dago, laguntza neurrien ezarpen judizialaren prozesua hasteko legitimatua dagoela pertsona interesatu bera. Pertsona interesatuak legitimazioa edukitzea oso aurrerapauso handia da, bere kabuz eska dezakeelako laguntza besteen menpe ez egonik.

Azkenik, Borondatezko Jurisdikzioko Legea erreformatzen da. Bertan adierazten da, prozedura berri hau ezagutzeko kompetentziaduna adin txikikoaren edo pertsona desgaituaren ohiko egoitzako Lehen Instantziako Epaitegia izango dela. Era berean, tutoretza, kuradoretza eta defendatzaile judizialaren inguruko espedienteak ezagutu duen organo judizialak, haren gainean emandako intzidentzia, tramite eta etorkizuneko neurri guztiak ezagutuko ditu betiere zirkunskripzio berean bizitzen jarraitzen badu pertsonak.

Espedienteak eskaera bitartez hasiko da eta kuradoretza edo tutoretza justifikatzen duen egitatea adierazi beharko da, espedienteak hasteko legitimazioa frogatzearekin batera. Epaileak esan bezala lagunduaren interesean jardungo du bere borondatea errespetatuz. Legeak epailearen kontrola zehazten du ere, urtero kargua onartzen denetik epea eman eta hurrengo 20 egunetan informe bat aurkeztu beharko duelarik kuradoreak lagunduaren egoera pertsonal eta ondarezkoarekin, eta administrazioaren kontu eman. Gainera esan bezala, legeak artikulua berri bat sartzen du, judizialki hartutako laguntza neurrien errebisio periodikoa.

Erreforma hau oso egokia da hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonen beharretarako. Jada egintza batzuk burutzeko laguntza behar badute, ez dute frogatu beharko gaixo daudenik, eta ez dira ordezkatuak izango, baizik eta bere egoerara egokitutako neurriak ezarriko zaizkie, bakarrik behar dutenerako laguntza izanik. Horretarako hiru instituzio daude, desberdinak direnak eta beraz oso egokiak adineko pertsonen behar bakoitzerako. Izan ere, agian pertsona batek laguntza modu jarraian behar du eta kuradoretza jartzen zaio, baina agian beste batek egintzaren bat burutu behar du urtean bitan urtero, eta beraz egokiago suertatzen zaio defendatzaile judiziala, aldizkako. Tenporalitate printzipioa betetzen denez beti egongo dira kontrolatuak eta gainera legitimazioa dute prozesua hasteko beharrezkoa ikusten badute. Erreforma

honen bitartez, subjektu aktibo izaten jarraitzen dute, beraien desioak, nahiak errespetatzen direlarik, eta hortaz gizaki autonomo bezala parte hartu gizartean.

6.KONKLUSIOAK

Lanean ikusi den bezala, hauskortasuna benetan ematen den errealitate bat da, gehienbat adinekoengan, normalean hura eragiten duten faktoreak sufritzen dituztenak izaten baitira. Izan ere hauskortasunak, gaitasun kognitibo eta fisiologikoen berezko ahultze eta galera bat suposatzen du eta askotan, egoera hori hobetu edo okertu dezaketen hainbat faktore sozialekin du zerikusia, hala nola bakarrik bizitzea, ezgaitasuna eta dependentzia. Bizi esperantza hazten doan heinean, geroz eta gehiago errepikatuko den egoera izango da.

Egoera honen ondorioz, pertsona hauei behar berri batzuk suertatu zaizkie, batez ere laguntza behar izatea beren beharrak gestionatzeko edo aholkuak jaso behar izatea erabakiak hartu ahal izateko. Pertsona hauek zailtasunak dituzte zenbait egintza burutzeko, edo zenbait erabaki hartzeko, baina horrek ez du suposatzen beste batzuk egiteko gaitasuna gordetzen ez dutenik. Gure sistemak arazo honen aurrean ezgaitzea aurreikusten du, non pertsona hauei ordezkari bat jarriko litzaieke beren erabakiak hartzeko eta egintzak burutzeko, ikusi dugun moduan neurri horien egokitasuna zalantzan dago, aldaketa handia eman baita gaitasun juridikoa ulertzeko kontzepzio desberdinen gainean.

Lanean zehar, arazo honi aurre egiteko instrumentu desberdinak eta beren norabidea edo izaera zein den aztertu dugu, eta esan dezakegu nagusia den korronteak gaitasun juridikoa ordeztzen duen sistema aldatzearen aldekoa dela, ezgaitzea ordenamendutik kenduz edo posizio subsidiario batean jarritz behintzat. Horren ordeztze, asistentzia edo laguntzaren figura aurreikusten da, helburua ez baita pertsona ordeztzea, baizik eta bere gaitasun juridikoaren egikaritzan laguntza ematea, hura osatzea, pertsona edadetuak ahal duen heinean egikaritzen jarraitu ahal izateko.

New Yorkeko Hitzarmenean jasotzen denari jarraituz, pertsona desgaituaren duintasuna errespetatzea bilatzen da, autonomia emanaz gizartean parte hartzeko eta bere erabaki propioak hartzeko bestetik berdintasunean, sistema paternalista batetik sistema sozial baterako aldaketa emanaz, integrazioa izanik helburuetako bat. Jada ez da pertsona desgaitua subjektu pasibo bezala ikusten, baizik eta subjektu aktibo bilakatzen da, non

berak hartuko dituen erabakiak, autonomia maila bat mantentzen baitu. Horretarako laguntza edo asistentzia-emate sistema aurreikusten da gehienbat, non batez ere pertsonaren borondatea errespetatzea bilatzen den beti eta laguntza hori bakarrik bere kabuz burutu ezin - dituen egintza eta erabakietarako jasotzea, hau da, asistentzi figura hori graduagarria izatea, pertsona eta egoera bakoitzerako moldagarria, eta ez desgaitasun egoera guztiak eskema bakar baten pean jarri. Honek ez du esan nahi pertsonak ez duela inongo babesik izango, epailearen eskumena baita kasuz kasu, egoera bakoitza aztertuz, laguntza horren eremua zein den zehaztea, zer egintza burutu ahal izango dituen pertsonak eta zeintzuk laguntzaile edo asistenteak, eta beti berak ezarritakoa betetzen den ikuskatuko du.

Ikusi ahal izan dugunez, Alemaniak, Italiak eta Kataluniak ildo hau jarraitzen dute non ezgaitzea, eta beraz, pertsona ordeztzea ebitatzen den, eta bere gaitasun juridikoa egikaritzean arazoa duen pertsonari asistente bat jartzen zaion behar duen eremuan. Subsidiarioki, ezgaitzea mantentzen da Italia eta Katalunian baina bakarrik behar beharrezko jotzen den kasuetarako aurreikusten da. Pertsonak bere kabuz ia egintzarik burutu ezin duenean edota bere borondatea adierazteko zailtasunak dituenean aplikatzen da, egokiago ikusten baita zuzenean denerako ordeztzea. Hala ere, esan beharra geroz eta gutxiago erabiltzen dela eta asistentzia lehenesten dela. Espainian ordenamendu komunak ezgaitzea aurreikusten du, baina lege aurreproiektuan ikusi ahal izan dugunez, norabidea aldatzen da, eta pertsonaren gaitasun juridikoa osatzeko hiru figura berri aurreikusten dira, eskumena epaileak izanik kasu bakoitzean eremua erabakitzeke. Gainera, Nafarroak hura bere ordenamenduan jasotzeari atea irekia uzten dio nahiz eta oraindik ez duen erregulatu.

Hala ere, beste korrante baten iritziz laguntza emate sistema honek, non pertsonaren autonomia errespetatzea bilatzen den, arazoak planteatu ditzake. Lagundua den pertsonaren borondatea kontuan hartu behar denez, honek zailtasunak planteatu ditzake pertsonak sufritzen duen desgaitasunaren eraginez bere borondatea adierazteko gai ez denean, zaila delarik kendu nahi ez den gaitasun hori egikaritzea. Kasu hauetarako egokiago jotzen dute ezgaitzea mantentzea eta ordezkapena ematea, Italian eta Katalunian planteatu zen modura. Gainera, kontsideratu izan da ere ezgaitze barruan hura graduatzeko baliabide legalak badaudela eta epaileak egin dezakeela.

Honetaz gain, kontsideratzen da, legeak asistentzi edo laguntza ezartzen duen epaiaren edukia guztiz zehaztu beharko lukeela, hau da, epaileak zehaztu beharreko egintzak zeintzuk diren, zer eremutan eman behar dituen eta horren inguruko aspektu guztiak puntuz puntu jasoak egon beharko liratekeela. Hala ez balitz, argudiatzen da kasuz kasuko epaiak oso desberdinak izango liratekeela, non agian epaile batek asistentzia zehatz mehatz azalduko lukeen, lotu beharreko aspektu guztiak jasoz, eta beste batek modu orokorrean, pertsonen arteko berdintasuna kolokan jarriko litzatekeelarik. Gainera, agian ez litzateke argi geldituko zeinek egin behar duen zer. Beraz, kontsideratzen da zenbait kasutan ezgaitzea egokia izango litzatekeela eta laguntza sistema horren edukia legez taxutua egon beharko litzatekeela.

Nire ustez, egokiagoa da lehen korronteak defendatzen duen bidea jarraitzea. Izan ere, aldaketa honekin bilatzen dena pertsona desgaituen-, (hemen barruan hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonak kokaturik), duintasuna errespetatzea eta integrazioa da, besteekiko berdintasunean jardun dezaken bere gaitasun juridikoa egikaritzekoan. Pertsonaren autonomia errespetatu nahi bada beharrezkoa da ezgaitzea ebitatzea, hura ordezkatzuz ez baita lortzen bera presente egotea. Egia da hura ordezkatzeko duen pertsonak haren borondatea errespetatu dezakeela, baina jatorrian ordezkaturia izaten jarraitzen du, beste pertsona baten erabaki pean gelditzen delarik, aitzitik bilatzen dena bere parte hartzea da, ahal duen heinean laguntzarik edo ordezkazarik gabe jardutea.

Gainera, ordezkatzeko honek ez ditu pertsona guztien egoerak jasotzen; izan ere, denak eskema berdinarean pean gelditzen dira bakoitzaren beharrak guztiz desberdinak direnean. Pertsona batzuek zenbait egintza burutzeko bakarrik behar dute laguntza, eta zilegi da egoera horretarako egokitutako laguntzaile bat izatea, bere bizitzako beste aspektutan autonomia izaten jarraituko baitute eta burutu ezin dituztenetan parte hartzea eduki, beren borondatea beti errespetatu behar baita. Egia da, kasu batzuetan borondatea adieraztea posible izango ez dela, baina horrek ez du esan nahi pertsona ordezkatu behar denik bere osotasunean. Italiar Gorteak adierazi zuen ez zela beharrezkoa beti borondatea adieraztea eta adibidez, espainiar aurreproiektuak dio laguntzailea modu ordezkatalean ari denean, kontuan hartu behar duela pertsonak bizitzan zehar nola jardun duen eta berak nahiko lukeen erabakia hartu. Beraz, nahiz eta borondatea ez adierazi, posible da hura kontuan hartzea.

Honetaz gain, asistentzia bakoitzaren egoerara moldagarria izanik, bertan ezarri daiteke agian ia egintza guztiak burutzeko eskuduna laguntzailea dela, ordezkapen bat burutuz baina ezgaitu gabe, argi utziz bakoitzaren egoeraren arabera zer bait dela, beti tokia utziz pertsona horren autonomia minimoari.

Guzti hau aurrera eraman ahal izateko, ez dut egoki irizten epaileak asistentzia eratzean jaso beharrekoa taxutua egotea, bilatzen dena baita laguntza figura graduagarria izatea eta pertsona bakoitzaren inguruabarretara moldatzea. Dena taxutuko bagenu, berriz ere existitzen diren egoera desberdin guztiak eskema berdin batean sartuko genituzke, hemen ekiditen saiatzen ari dena. Beraz, egoki irizten dut epaileak eremua zehaztea pertsonaren eta bere beharren arabera, horrela benetan behar dutenerako laguntza bakarrik ezarriko da, guztien eskubideak bermatuko direlarik, neurria egokitua baita. Adineko pertsonen beharrentzat guztiz egokia da, ez baitira ordezkatuak izango eta behar dutenerako laguntza jasoko dute, beti beren nahiak errespetatuz.

Honekin lotuta esan beharra dago, Aurora Elosegui magistratuarekin ados egonik, epaitegi espezializatuak beharko liratekeela laguntza figura hauek eratzeko. Izan ere, Espainian eta Katalunian hau erabakitzeke eskuduntza Lehen Instantziako Epaitegiari ematen zaio, honek jada hainbat materientzako konpetentziaduna denean. Benetan nahi bada gaitasun juridikoaren egikaritze osatuko duten figuren eratzeko modu pertsonal batean burutzea, non epaileak kontuan hartuko dituen pertsona horren beharrak, bere nahiak, bere inguruabar propioak eta horren arabera beharrezko laguntza ezarri, lan horretara dedikatzeko denbora eman behar zaio horretan bakarrik zentratzeko. Gainera, ezarritako guzti horren kontrola eraman behar badu, horretara bakarrik dedikatzeko denbora beharko du, bere funtzioak benetan ondo burutzeko.

Jada beste hainbat materien inguruko erabakiak hartu behar baditu ez da benetan zentratuko kasu bakoitzean, eta hemen bereziki garrantzizkoa da dedikazio osoa, pertsona baten autonomiaren gain eta erabakitzeke gaitasunaren gain erabakitzen ari baita. Gainera dedikazio honekin, aipatutako erabakiaren zehatzgabetasun posiblea ez litzateke emango, epailea bakarrik pertsonak zein egintza burutu ahal dituen eta zein ez zehaztean zentratua egongo litzatekeelako, epai osoak emanez kasu bakoitzean. Era berean, epaile hauek pertsonak entzuteko, behar horiek ulertzeko gai izateko formazioa eman beharko litzateke, gai izan daitezkeen etortzen diren pertsonen egoerekin identifikatzeko eta beraientzat egokiena zer den jakiteko.

7.BIBLIOGRAFIA

Legislazioa eta epaiak:

- Anteproyecto de Ley Foral de Modificación y Actualización de la Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra o Fuero Nuevo.
- Anteproyecto de Ley por la que se reforma la legislación civil y procesal en materia de discapacidad.
- Codice Civile Italiano.
- Codigo Civil, *BOE*, núm. 206, de 25 de julio de 1889.
- Codigo Civil de Cataluña.
- Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad, hecho en Nueva York el 13 de diciembre de 2006.
- Sentencia 440/2005 de la Corte Constitucional de 9 de diciembre de 2005. <http://www.altalex.com/index.php?idnot=10151>
- Sentencia de la Corte de Casación de 26 de octubre de 2011 n.22332. http://www.territorioaslmilano.progettoads.net/allegati/ADS_t2_allegati/337/FILE_Allegato_sentenza.pdf
- Sentencia de la Corte de Casación de 12 de junio de 2006, núm. 13584 <http://www.altalex.com/index.php?idnot=10523>

Doktrina:

- ADVANTAGE JA . State of the Arte report on the prevention and management of frailty, 2018. www.advantageja.eu
- AYALA GARCÍA, Alba, PÉREZ DÍAZ, Julio, PUJOL RODRÍGUEZ, Rogelio, “Un perfil de las personas mayores en España 2018. Indicadores Estadísticos básicos”, *Envejecimiento en red*, 17.zb, 2018.
- BROCKLEHURST, Jc, *Brocklehurst's Textbook of Geriatric Medicine and Gerontology*, Churchill Livingstone, Edimburgo, 1985.
- BROWN, I, RENWICK, R, RAPHAEL, D, “Frailty: constructing a common meaning, definition, and conceptual framework”, *Int J Rehabil Research*, 18.zb, 1995.
- DE ASIS ROIG, Rafael, BARRANCO AVILÉS, María del Carmen, PALACIOS RIZZO, Agustina, “Algunas reflexiones generales del impacto de la Convención Internacional de los Derechos de las Personas con Discapacidad en el Derecho Español”, Patricia, CUENCA GÓMEZ (Zuzendaria), *Estudios sobre el impacto de la*

convención internacional sobre los derechos de las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español, Dykinson, Madrid, 2011.

-DE BARRÓN ARNICHEs, Paloma, “La asistencia: una institución para la protección de las personas capaces en situación de vulnerabilidad”, *ADC*, 66.zb, 2013, 1606-1663.orr.

-DE COUTO GALVEZ, Rosa, MIRAT HERNÁNDEZ, Pilar, ARMENDÁRIZ LEÓN, Carmen, *La protección jurídica de los ancianos*, Colex, 2007.

-Diccionario de la Real Academia de la Lengua Española. www.rae.es

-DOSE, Hans- Joachim, “Development of German Law of “Betreuung””, *4th World Congress on Adult Guardianship Kongresuan*, Alemania, 2016.

-ELOSEGUI, Aurora, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiezin bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

-Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Politika Sozialeko Sailburua. Estudio sobre las condiciones de vida de las personas de 55 y más años en Euskadi. Vitoria-Gasteiz, 2015

-EUSTAT. Panorama Demográfico, 2014. www.eustat.eus

-FERRANDO, Gilda, “Las figuras de protección de las personas vulnerables tras la reforma introducida por la Ley 6/2004, de 9 de enero” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011.

-FERRER, Antonio Manuel, “Konpainiarako eta tratu txarren prebentziorako tresna juridikoak”, *Egoera ikusiezin bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa* Jardunaldiaren baitan, Donostia, 2019/02/21.

-FRIED, Linda, TANGEN, Cm, WALSTON, J, NEWMAN, Ab, HIRSCH, C, GOTTDIENER, J, “Frailty in older adults: evidence for a phenotype”, *The Journals of Gerontology: Series A*, 56, 2001.

-GARCÍA PONS, Antonio, *Las personas con discapacidad en el ordenamiento jurídico español La convención internacional de 13 de diciembre de 2006*, Editorial Universitaria Ramón Areces, Madrid, 2008.

-HURKOA, “Egoera ikusiezin bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa” Donostia, 2019 otsailaren 22ko Jardunaldia.

- HURKOA, *Informe del proyecto de fragilidad*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2018. www.euskadi.eus

-INE. Mujeres y Hombres en España 2018. www.ine.es/ss/Satellite?L=es_ES&c=INESeccion_C&cid=1259926380048&p=1254735110672&pagename=ProductosYServicios/PYSLayout

-JAUREGUI, José R, RUBIN, Romina K., “Fragilidad en el adulto mayor”, *Revista del Hospital Italiano de Buenos Aires*, 32, 2012.

-LIPP, Volker, “Erwachsenenschutz und Stellvertretung in Gesundheitsangelegenheiten”, *Deutsch-japanisches Symposium zum Betreuungsrecht Sinposioan*, Tokio, 2013.

-MARTÍNEZ GARCÍA, M. A., “Instituciones de protección: La asistencia. El documento de voluntades anticipadas”, Reyes BARRADA ORELLANA , Martín GARRIDO MELERO, eta Sergio NASARRE AZNAR (Koordinatzailea), *El nuevo Derecho de la persona y de la familia Libro segundo del Código Civil de Cataluña*, Bosch, Barcelona, 2011.

-Ministerio de Sanidad Español . Consenso de Prevención y Manejo de la Fragilidad, 2014. https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/FragilidadyCaidas_personamayor.pdf

-Osasunerako Mundu Erakundea,. World Report on Ageing and Health. 2015 https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/186463/9789240694811_eng.pdf?sequence=1

-PEREÑA VICENTE, Montserrat, “La convención de Naciones Unidas y la nueva visión de la capacidad jurídica”, José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011.

-RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco, “Comentario al artículo 226-2 CCCat”, Encarnación ROCA TRÍAS (Koordinatzaile Orokorra), *Código Civil de Cataluña. Comentarios. Libro II. Persona y Familia*, Editorial jurídica sepín, Barcelona, 2011.

-RIVERO HERNÁNDEZ, Francisco., “La reforma del Derecho de familia en el Código civil de Cataluña”, Reyes BARRADA ORELLANA , Martín GARRIDO MELERO, eta Sergio NASARRE AZNAR (Koordinatzailea), *El nuevo Derecho de la persona y de la familia Libro segundo del Código Civil de Cataluña*, Bosch, Barcelona, 2011.

-SAN SEBASTIAN, Raquel, MARAÑON , José Luis, ETXEBERRIA, Bakarne, “Hauskortasun-egoeran dauden adineko pertsonak” *Egoera ikusiez in bat: Hauskortasun egoeran bizi diren adineko pertsonak Lagun egitea eta abusuen prebentzioa Jardunaldiaren baitan*, 2019.

-SAVORANI, Giovanna, “La designación del administrador de apoyo en previsión de la futura incapacidad en el derecho italiano” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011.

-SEDA HERMOSÍN, Manuel Antonio, “El notario como actor fundamental en la protección de las personas vulnerables” José, PEREZ DE VARGAS MUÑOZ (Zuzendaria), *La Encrucijada de la Incapacitación y la Discapacidad*, La Ley, Madrid, 2011.

-TURK, Ali, WOHLER, Ulrich, SALMAN, Ramazan, “El derecho de curatela alemán”, *Institut für transkulturelle Betreuung (BtV) e. V.*, 2010.

-VARELA AUTRÁN, Benigno, “La protección jurídica de las personas con capacidad intelectual límite: Curatela, Guarda de Hecho y otras figuras”, Manuel, ÁNGEL MARTÍNEZ GARCÍA (Zuzendaria), *La defensa jurídica de las personas vulnerables*, Civitas, Pamplona, 2008.